

ELKARRIZKETA: MIKEL IRIZAR, GOIENAKO BATERATZAILEA

ARKO

Arrasate

2000.eko
martxoak 10
497. zenb.

P R E S S



IKUSPEGIA: NEKANE SAN MIGEL • EUREN IKUSPUNTUTIK: JOSE MARI ASTIGARRAGA
ORAIN ETA HEMEN: HERRI KONTSULTA • KULTURA ELKARRIZKETA: MAITE BARREÑA

ZEINTZUK DIRA GURE KOLOREAK?



Zeuk erabaki.



EAJ
PNV

Berriz ere

Urte batzuetako etenal-diaren ondoren, berriz ere hemen nauzue, zatitxo hau betetzeko. Aldizkari eta egunkarietako kazetariak euren lana betetzeko lerroak egin edo eskatzeko beharrea aurkitzen dira. Zer esana ganorazkoa den, inori inporta zaion edo edozertarako balio duen, bigarren edo hirugarren mailakoa bihurtzen da. Kontua, maizegi, betetzea eta itxura ematen duen zerbait agertzea da.... Jendeak irakurtzen duen?... Eragin ekonomikorik ez duen bitartean....Ia ezinezko bilakatu da ezer berri edo baliogarria idaztea (eta horrexegatik, irakurtzea), are gutxiago oroitzapenetan geratuko dena...Horretarako, irakurri beharra dago, eta sinaduran agertzen den izenaren arabera, hori ere baztertu egiten dugu....

Oroitzapen eta



Nekane San Migel

Martxoaren 8a zenik ere ez zekiten emakumeek ere ospatzen dute

ospakizunetarako den martxoaren 8arekin dator "idatzaldi" berri hau. Ahaztu eta utzi ezinezko borroka luze, neketsu bezain ezinbesteko bidean gogoangarri bihurtu den egun hau....Garai bateko indarra galdu duela bistan da (santifikatu edo hedatu diren ororekin hala gertatu ohi da) baina lehen, ospakizun baten indarrak egunerokoaren ahulezia uzten zuen gogoan. Egun hori aitzakia hartu eta berriak bezain deigarriak ziren martxoaren 8ko jaiak eta aldarrikapenak (Arrasaten, 1978koa dut gogoan) giroa harrotu eta kontrako jarrera bortitzak eragiten zituen (feminista zinela aitortzea edo hala deitzea, ia "puta" bezain iraingarria zen). Egun baterako pilatzen zen indarra, behin bakarrik atera ez baino, eguneroko bidera ekarri, isiltasun bortitzean, etsi gabe, banatu eta,.... batzuetan

bultzada txikiz, besteetan "mesedez" eskatuz, askotan garraisi lazgarritz... gure artean eseri eta kokatu da: Berdintasuna exijitzea ez da sakrilegioa; tratu txarrak astintzea (mamuak balira...uxatzeko, urrutiratzeko, desagertzeko...) inork ez du lohi edo lizun ikusten (lohia tratu txarra berez dela ohartarazteraino)...DUIN hitza elizako errezeptuan ibiltzetik Seberoko ohiko "barriketetara" ekarri da (dugu?)...Martxoaren 8a zenik ere ez zekiten emakumeek ospatzen dute, besterik ez bada afarixtoa... Orain beste emakumeekin afaltzera doazen hainbat amek orduan bere alaba "horretan" zebilenik lotsaren lotsez ezkututzen zuen, ukatzeraino... poliki baina geldiuenerik gabe, ia baztertzen dugun, orain urte batzuk esanguratsu zen eslogan hura: "Gizona, omen...Emakumea, ote?...", ia ez zaigun denbora joaten erasotutakoak babesteko neurri eraginkorrek asmatzen, baina beharrik ez delako...ia holako gogoetak oroitzapenean geratu besterik ez diren....iraganeko bilakatu, pasatakoa nolako zen jakin eta ez bueltatzeko asmo sendoz. ■

"Helburuak interes orokorrekoak badira, ezinbestekoa da Administrazioak ere laguntzea"

Mikel Irizar

8

mahai jarriko dira kanpo zorrari herri kontsulta egiteko.

Martxoaren 12ko hauteskundeetarako jarriko diren hautes mahaien ondoan eta herriko plazan jarriko dituzte Harreman GKEko kideek. Guztietan begiraleak egongo dira herri kontsulta behar bezala joan dadin.

ITURRI ONETIK

Omenaldia Eugenio Otxoari

Eugenio Otxoa, Gatzagako alkate izan zena, Poloniako inguru hotzetan dabilen bitartean, gatzagarrak omenaldi beroa prestatzen ari zaizkio hainbeste urtean alkate fina izateagatik. Ez da omendu bakarra izango, hala ere. Juan Mari Makazaga "Pequeño"k ere herritarren eskerrena jasoko du orain artean udaltzain moduan egin duen lanagatik.

Omenaldia datorren martxoaren 18an, larunbatez, izango da. Lehenik eta behin, ordubatean, txalaparta eta bertsoak. Ondoren, ohorezko aureskua dantzatuko zaie omenduei.

Arrasateko konpartsak eta gaiteroak hantxe izango dira. Ondoren, herri bazkaria izango da.



ARCO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otolara kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marjio Deogracias. **Kazetariak:** Ubane Madera, Maider Osa, Leire Kortabarría. **Publizitateak:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroibe. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Arantzazu Loidi. **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90) **Disenua:** Maddi Trubuelo. **Asteburuetako berriemakaldea:** Monika Belastegi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Sala, Karmele Perez, Iker Ezpeleta, Nekane San Migel. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimatgia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birzikaltuan egiten da.

Azala: Maddi Trubuelo.



Arrasateko Udalerria laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundia laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila laguntza

EMAKUME! HARTU HITZA ETA ERABAKIA

Emakumeen Kontseiluak hau guztia adierazi nahi die herritarrei eta gizarteko bizitzan esku hartzen duten erakundeei eta herritarren entitateei eta elkarteei:

1. Gizartean emakumeek partehartzea, egoera berdinean eta gizonen aukera berdinekin, funtsezko betebeharrak da gizarteak behar duen garapen ekonomiko eta sozialean aurrera egiteko.

2. Gure gizarteak talentu eta bitarteko guztiak behar ditu, eta emakumeek garbi erakutsi dute gizonen dituzten gaitasun berberetzat har dezaketela lanean, politikan, gizartean, kulturen e.a.

3. Gizakumeen betebeharrak eta ardura ere bada etxeko eta familiaren lanak egitea, eta zeregin horiek ezin dute izan oztopo emakumeen bizitza profesional eta partehartzialerako.

4. Bizitzaren birsorkuntzak dakarren kosteak gizarteratu egin behar dira: baliabide egoerak sortuaz koste horiek hemendik aurrera gizartearen ardura izan daitezke.

5. Instituzioek eta erakundeek konpromisoa hartu behar dute eta lan egin behar dute gizon emakumeen arteko aukera berdintasunaren alde, eta hori onargarria izango da gizarte osoarentzat.

6. Aukera berdintasuna errealtate bihurtzeko, konfiantza hartu behar da genero ikuspegia, emakumeen beharrik aintzat hartu enplegu, osasun, gazteria, hirigintza, e.a.eko politika orokorretan.

Dei egiten diegu Instituzio publiko eta pribatuei, gizar-te erakundeei, sindikatuak, enpresa erakundeei, feministei eta abarri eta norbanakoei, proposamen honen alde egin dezaten eta Konpromisoa har dezaten aukera berdintasuneko estrategian, programetan, egituran eta proposamenak zabaltzen dituztenean.

Horrela eta horrela baka-rik har dezakegu emakume-
ok hitza eta erabakia.

Emakumeen Kontseilua

Entzun ditugun hainbat komentario tarteko, Urkuluren gaia planteatzen erabaki dugu. Urkulun fauna eta espezie asko dago. Batzuek urte osoa ematen dute bertan eta besteek negua. Adituek diotenez, ahate, lertxun, zikoina eta abarren espezieak aurki daitezke. Eremu honen aberastasuna Txingudiko badiarekin aldera daiteke. Gipuzkoako Aldundiak parke ornitologiko bihurtu nahi du.

Baina Urkulu hiri baino gehiago da. Aisialdirako nahiz kirola egiteko gunea eta naturarekin harremanetan egoteko ingurua. Esparru kutun honen egoera penagarria da, oso hondatuta eta gutxi zainduta. Ibiltzera edo balio ez duten objektuak botatzera doan

jendeak utzitako hondakinez beteta dago. Paperak, kondoiak, hiri-hondakin solidoak... Inguruko bidearen egoera eskasa gehitu behar da eta azken boladan urtegitik hurbil ireki diren baso-pistek ere, eremu horren paisaian kalte ikaragarria eragin dute.

Inplikaturik dauden erakundeek esku hartu beharko lukete. Beharrezkoa da basopista batzuen eraikuntza sistematikoa zorrozki kontrolatzea. Urtegia inguratzen duen bidea bidegorrietan erabiltzen den hondar gorriarekin estal daiteke. Debekatu egin behar da ibilbide osoan kotxeak ibiltzea, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenak dituztenak salbu. Inguru osoan bertako arbola-espezieak landatzeko plangintza zorrotza ezartzea komeni da. Ehiza galazari egin behar da, ez urtegiak bakarrik, baita inguruetan ere, hegaztiak ez baitakite ehizababeslekua non amaitzen den.

Gure ustez plangintza oso baterantz jo beharra dago eta plangintza hori eragile guztiek (hiritar, baserritar, ekologista eta erakundeek) eztabaidatu eta adostu behar dute.

Ez dugu ahaztu nahi Urkulu hiri-hondakin txiki eta handiez betetzen duen jendeari kritika egitea eta eskatzea kontzientzia hiritar handiagoa izan dezala, gure bailaran nahikoa bitarteko daude eta hondakinak ezarritako tokietan bakarrik utzi ahal izateko.

Ekologistak Martxan
(Eki)

Kanpo zorrari ez!

Datorren martxoaren 12an bozketa berezi bat izango da Arrasaten. Herriaren partehartze zuzena eta mundu bidezkoago bat sustatu nahi dituen bozketa bat.

M12an Arrasatearrek (beste hainbat herri eta hiritako bizilagunek bezala) hautesleku ofizialen inguruan eta herriko plazan aurkituko dituzte Kanpo Zorraren Ezabapenaren Aldeko Herri Kontsultan bozkatzeko mahaia.

"Erreferendum" honen helburu nagusia espainiar gobernuaren gain 3. Munduko herrialdeek duten kanpo zorra ezaba dezan presio politikoa egitea da. Azken urteetako mobilizazioak gabe (1.000.000 sinadura bildu dira) orain ez zukeen Mozambikeren kanpo zorra ezabatu izango, eta honek gizarteak nazioarteko egitura bidegabekoen ezabapenaren aldeko jarrera plazaratzeko duen eraginkortasuna erakusten digu.

Gure ongizatea munduko gizakien gehiengoaren miseria oinarritu nahi ez dugulako, BAI kanpo zorraren ezabaketari!

Kanpo Zorra
Ezabatzeko Bilkura

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

- Ostirala, 10
• Azkoaga, Iturriotz
- Larunbata, 11
• Korkuera, Musakola
- Igandea, 12
• Irizar, Erguin
- Astelehena, 13
• Amezua, Santa Marina
- Asteartea, 14
• Zabala, Zarugalde
- Asteazkena, 15
• Ruiz, Maalako Errabala
- Osteguna, 16
• Morales, San Andres

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Herrialde pobreei kobratu beharko litzaieke Kanpo Zorra?

Martxoaren 12an kanpo zorrari buruzko herri kontsulta egingo da Arrasaten eta Aretxabaletan.



Ekain Zubizarreta
(17 urte)
Ikaslea

Lapurretan ibili ondoren independente izaten uzten diegu, baina esplotatu ondoren eta aurrera irteteko utzitako dirua berriz eskatzea lotsagarria da.



Imanol Soriano
(19 urte)
Ikaslea

Zorra kobratzen badiegu beti egongo dira zorretan herri aberatsekin eta ez dira inoiz hortik aterako.



Paki Iglesias
(32 urte)
Etxekoandrea

Ez, behar handiagoa dute-lako eta horrela lagundu ahal badugu, egin egin beharko genuke.




Teresa Altuna
(54 urte)
Etxekoandrea

Barkatu egin beharko litzaieke. Asko duenak ordaindu beharko luke.



Julita Zabala
(56 urte)
Etxekoandrea

Barkatu egin beharko litzaieke, bestela ere nahiko miseria dute eta.



Jose Manuel Mateos
(46 urte)
Langilea

Nire ustez kapital batuketa asko daude eta jende asko dago goseak hiltzen eta horrela uzteko eskubiderik ez dago.



Miren Gartzia
(26 urte)
Langilea

Ez, nahikoa daukate daukatenarekin. Lagundu egin beharko genieke.



Mikel Murillo
(23 urte)
Langilea

Munduan dagoen diru guztiarekin eta armetan eta antzekoetan gastatzen denarekin ez.

Taberna salgai

Arrasaten
guztiz jarria.

Tel.: 943 77 07 80 eta 608 73 86 73





GUBI
Ileapaindegia



Otalora 5, 1-B • ARRASATE
Tel.: 943 79 12 74

Buruan dituzun arazoei agur esan

10

ostirala

■ ZINEA

Santitos, 19:00 eta 22:00, Alai zineman.

■ KULTURA ASTEA

San Andres Herri Eskola-ren Kultura astean, tailerrak, 9:30. 14:30etan ipuin kontaketa. Emakume Kontseiluak ere ipuin kontaketa saioa antolatu du, Musakola Herri Eskolan, 11:30. Emakume eta gazteentzat txokolatada. Gazte Txokoetan, eta Seber Altube eta Santamañako ludoteketan, 18:00.

■ JAM ARETOA

L7 eta Pussycatsen kontzertua izango da. Sarrerak 1.500ptan. Jam aretoan, 22:00.

11

larunbata

■ ZINEA

La Playa, 17:00, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

■ AZOKA

Seber Altuben emakumeen azoka eta talogintza, 10:00. Herri bazkaria, Musakolako Hostalean, 14:30.

■ KONTZERTUA

Frank T, El Imperio eta DjZeta hip-hop musikari-entzertua Bergarako Go-Jamen, 22:00.

12

igandea

■ ZINEA

La Playa, 17:00, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

■ INDEPENDENTZIA EGUNA

Ehk antolatuta Independentzia Eguna ospatuko da: enkartelada mugikorra Seber Altuben, 10:00. Herri poteoa trikitilariekin, 12:30. Herri bazkaria, 14:30 (eguraldi onarekin plazan eta bestelako Arrano elkartearen). Txartelak Irati tabernan daude salgai. Ikasleek 1.000 ptan., bestela 1.500. Bertsolariak eta trikitilariak egongo dira. Enkartelada mugikorra, Seber Altuben, 18:30.

■ KONTZERTUA

Javier Sun y los Perseguidos Bergarako Go-Jamen, 21:30.

13

astelehena

■ ZINEA

La Playa, 19:00 eta 21:30, Alai zineman.

■ AHIKIDOA ETA IPUINAK

San Andres Herri Eskola-ren Kultura asteak hiru aukera eskaintzen ditu gaur. 10:00, Ahikido erakusketa; 14:30, haur zinema, eskola aurreko eta 2., 3. eta 4. mailakoentzat, eta ipuin tailerra 4., 5. eta 6.ekoentzat.

■ HAUR ANTZERKIA

Txamuskina taldeak Kaioa eta Katua umeentzat antzez-lana taularatuko du, X. Antzerki Jardunaldien barruan. Amaia Antzokian, 11:00 eta 15:00.

14

asteartea

■ ZINEA

La Playa, 19:00 eta 21:30, Alai zineman. Ikuslearen eguna.

■ KULTURA ASTEA SAN ANDRES ESKOLAN

Umeentzako kultura astearen barruan, ahikido erakusketa, 9:30, klasiko saioa 11:00, eta Patxi Zubizarreta idazlearekin topaketa, 15:00, antolatu dira.

■ EMAKUMEA MINTZAGAI

"Euskal Herriko emakumeen erronkak" hitzaldia eskainiko du Maite Barreñak, Emakume Sailaren eskutik. Monterronen, 19:00.

■ NIKARAGUA, GUATEMALA ETA KOLONBIA

"Nikaragua, Guatemala eta Kolonbiako egoera" hitzaldia Udaleko Gazte Bulegoak. Arrasateko Kultur Etxea, 19:00.

Autoestima ikastaroa

Emalea: Pepa Bojo, sexologoa eta psikologoa
Saio Kopurua: 10. Astean behin asteartero
Datak: martxoaren 23tik ekainaren 8ra
Matrikula: doan
Izen emateko epea: martxoak 21
Lekua: San Viator Ikastola

Emakume Saila

ARRASATEKO UDALA

15

asteazkena

16

osteguna

■ MENOPAUSIA HIZPIDE

Menopausia garaiko osasun zainketari buruzko hitzaldia eskainiko du Alberto Rodriguez medikuak, Eroski Fundazioko Kontsumitzaileen Eskolaren eskutik. Monterronen, 16:30.

■ HITZALDIA BERGARAN

San Josepe jubilatua eta pentsionisten elkarteak eta Bergarako UNEDek "Politika Bergaran XIX eta XX. mendeetan" hitzaldia antolatuta dute, gaztelaniaz. Jose Maria Garmendia irakasleak emango du. Miguel Altuna institutuan, 19:30.

■ ANOREXIA ETA BULIMIA

Edurne Iarza dietistak anorexia eta bulimia aztertuko ditu hitzaldi batean, Eroski Fundazioko Kontsumitzaileen Eskolak antolatuta. Monterronen, 16:30.

■ EMAKUMEA MUNDUAN

"Emakumearen egoera Txipapas eta Guatemalan" hitzaldia antolatuta du Udaleko Gazte Bulegoak. Kultur Etxean, 19:00.

■ ZINE KLUBA

Udaleko Kultura eta Emakume sailek zine kluba antolatuta dute gaurko. Sally Potter zuzendariaren *Lección de Tango* eskainiko da. Amaia Antzokian, 21:30.

■ MUSIKA ORDENADOREZ

Ordenadore bidez musika egiteko ikastaroa antolatuta du Arrasate Musikalek. Partiturak idatzi, entzun eta inprimatzen irakatsiko da, Encore programari esker. Martxoaren 15era arte dago izena emateko epea, Arrasate Musikalena.

■ AUTOESTIMA IKASTAROA

Autoestima ikastaroa antolatuta du Udaleko Emakume Sailak. Pepa Bojo sexologo eta psikologoak emango du. Hamar eskola izango dira, asteartero, martxoaren 23an hasita. Izena emateko epea martxoaren 21ean bukatuko da.

■ KINTO BILERAK

Hilaren 25ean, 3 kinto bilera izango dira. Batetik, 1943.an jaiotakoena; izena emateko, jo Bengoa tabernara. Bestetik, 1937.ekoen bazkarirako deitu Pedro Fernandezi (943 79 02 48) edo Jose Riviereri (943 79 10 57). Azkenik, 1940.an jaiotako emakumeek lehen aldiz

bilera egingo dute. Jo Hire edo Begoña dendetara, 17a baino lehen.

■ LORE GAZTEAKEN BAZKARIA

Apirilaren 15ean bazkaria izango dute Lore Gazteak dantza taldeko partaide helduek. Gainera, azken 35 urte hauetan taldeko partaide izan diren dantzari eta txistulariak gonbidatu dira. Izena ematea 3.000 pezeta da, eta Kajoi edo Zeziagarenean egin beharko da, apirilaren 2a baino lehen.

■ MOZAMBIKERAKO LAGUNTZA

Mozambiqueko herritarrei laguntzeko bi kontu zenbaki ireki ditu Harreman Hirugarren Mundu taldeak: Kutxan, 2101.0024 1001 2298 6177, eta Euskadiko Kutxan, 3035.0002 1000 2003 3659.



ESTELLA ORTOPEDIA

Javier Estella, ortopediako teknikari tituluduna
Osakidetzarekin eta Lagun Aroekin hitzartuta

Etzerako laguntza teknikoak

- Eusteko sistemak
- Garabiak
- Eskaren aurkako airezko koltxoiak
- Segurtasun izarak



RPS 421/97

Matxiategi, 5 • BERGARA • Tel.: 943 76 19 63

Idazkaritza eta administrazio

lanetarako pertsona bat behar dugu aldi baterako



Eskatzen dena:

- Enpresa Zientzietan diplomatua edo eta Administrazio Teknikari-espezialista.
- Microsoft tresnen ezagutza izatea (erabiltzaile mailakoa).
- Kontabilitatearen ezagutza oinarrikoa.

Interesatuok, bidali zuen Curriculum Vitae-a helbide honetara:

Arizmendi, Koop.-136 PK- 20550-Aretxabaleta

USTEAK USTE

Barkatu ala ez kobratu?

Kanpo zorrari buruzko herri kontsulta dela eta, aste honetako inkestan horren gainean zer egin beharko litzatekeen galdetu dugu eta kanpo zorra bertan behera laga beharko litzatekeela erantzun digute guztiek. Baina kontua zein da, barkatzea ala ez kobratzea? Gobernuz Kanpoko Erakundeek ez kobratzea proposatzen dute. Eta bat nator horrekin. Laguntza eman egiten da eta ez laga. Eta horixe behar dute Hirugarren Munduko herri askok, laguntza. Euren garapenerako laguntza. Gu maileguak ematera mugatzen bagara, ez dute inoiz burujabetasunik izango. Gainera Herrialde Garatuek ematen dituzten "laguntzak" gehiengotan ez dira behar bezala banatzen eta horrek herrialde haien egoera gehiago (ahal bada) okertzen du. Armak erosteko eta aberatsen kontuak gehitzeko erabiltzen dira kasurik gehiengotan maileguak, beraz, zertarako eman? Igandean horren aurka garelako erakusteko aukera daukagu herri kontsultan, kanpo zorra desagerrazteko.

Marijo Deogracias



Garaian garaikoa

* Jose Mari Astigarraga

Trapaladan ihesi doakigu denbora. Gezurra badi-rudi ere, hainbeste ikus-min eta zarata atera zuen bi mila urtearen hasiera, galdu zaigu oroimenaren itsas ertzean. Bat batean inauteriekin topo eta inauteriak ere, ohiko usadioak betez (mozorro-tze, festa eta "sardinaren" erreketak) joan dira abiada bizian. Egutegia ez da gelditzen, egunero ospatzen du bere orria.

Garaian garaikoa, begien bistan orain Aste Santua, Pazkoa eta opor txikiak. Hasiak dira dagoeneko opor eta bidaien propagandak, eta hasiak arrasatear asko, ez denak, bere planak amesten eta prestatzen.

Baina Aste Santura eta oporretara iristeko, 40 egun daude tartean. Zer egin? Zertarako erabili?

40 egun hauek, naturako udaberriaren prestaera eta atari dira; neguaren heriotza gainditzen dute. Garaian garaikoa; zergatik bizitzaren garaipena, Pazkoa

prestatzeko ez erabili? Kristau giroko pertsonak, "garai berezi eta garrantzizkotzat" hartzen dituzte 40 egun hauek. Garizuma da, eta Garizuma berezia gainera, 2000. urtearen Jubileu Nagusiko Garizuma.

Garaian garaikoa, ez da, bada, pasa Erliñoaren garaia? Beno. Pasa, gauza historikoak bakarrik pasatzen dira. Jainkoa, izanez bada behintzat ezin da pasa, denborak ez dio ukitzen. Erliñoaren konkretoak, bai, pasa daitezke, historikoak baitira: baina erliñoaren sorreran dauden pertsonen funtsezko galderak, halaber: gauzen "izana", "nia"

eta pertsonaren misterioa, eboluzioaren norantza, bizitzaren, askatasunaren, etiketaren eta abar luze baten zentzuak bizirik dirauten bitartean, Erliñoak iraungo du, erliñoak izango dira.

Garaian garaikoa, astear-tean "sardina" erraustu genuen bukaera bat adierazteko, asteazkenean, berriz, Hausterre eguna, hautsa jaso genuen kristauok Garizumako lehen ekintza bezala. Beste ekintza eta aukerak ere prestatu eta egingo dira Debagiengotan. Halaber:

1- Elizak, elizkizun orduetatik kanpo, irekiak egongo dira, ordu batzuetan bederen, isiltasuna, erreflesioa eta barne-giroa errazteko eta gozatzeko.

2- Parrokietan bost eguneko otoitz-mintzaldiak egingo dira.

3- Ebanjelioaren argitan erreflesio eta konpartitze taldeak ere sortuko dira.

4- Lukasen ebanjelioa herri osoari eskaini eta eskuratu ko zaio.


5- Gipuzkoako kristaudiarekin batera, Arantzazurako oinezko erromeria antolatuko da sinismena baieztatu eta Jubileua ospatzeko.

“
Aste Santu eta oporretara iristeko, 40 egun daude tartean. Zer egin? Zertarako erabili?
”


* Parrokioa

Pando
ERROTULOAK
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabilioia)
Tel. / Faxes: 943 79 79 70

Sagardotegia Txotx egin!
ITURROIETA
Araba duzoa
Tel.: 945 44 53 85
ARAMAIO



Ongizate aurrezkiarekin, baldintzarik gabeko askatasuna zure aurrezkientzat.



24 piezako Mahai-tresneria

Promozio honek lehen 8.000 eragiketarako balio du • Pertsonako opari bat
• Diru-sarrerak beste entitate bateko txeeekin edo esku-dirutan egin ahal izango dira, baina gutxienez promozioan eskatzen den zenbatekoa izan behar du • Ezin izango da intsuldaketa edo traspasorik egin • Berri gehiagorako Euskal Autonomi Erkidegoko Euskadiko Kutxako sukurtsaletan edo 901 333 444 Telebankako telefonora deituta.

Eta sari gisa, eraman ezazu dohainik Mahai-tresneria bat.

Erabilgarritasun osoa, errentagarritasun handiagoa eta aurrezki errazagoa eta erosoagoa. Ikusten duzun bezala, guztia da onuragarria Ongizate Aurrezkiarekin. Horregatik, dagoeneko 100.000 lagunek baino gehiagok beren aurrezkiak askatasun osoz erabiltzen dituzte. Oraindik zure aurrezkiak epe batera lotuta badituzu, ez itxaron gehiago zure Ongizate Aurrezkia zabaltzeko. 350.000 pta.ko diru-sarrera eginda 24 piezako Mahai-tresneria oparituko dizugu.

OÑATI


1 Ez da araztegi-rik egingo

Gipuzkoako Ur Partzuergoak Oñatiko Udalaren kexuak entzun ditu eta arrazoia eman dio bere azken asanblean. Erabaki honen arabera, hasiera batean Zubillagan eraiki behar zen ur araztegia Epelen egingo da. Oñati, Arrasate, Eskoriatza eta Aretxabaletako ur zikinak jaso eta garbituko ditu ur araztegi honek, bai etxetatik doazenak, bai lantegietakoak. Oñatiko Udalak bi arrazoitan oinarritu zituen kexuak: batetik, Zubillaga auzoak baditu dagoeneko Mankomunitateko zerbitzu desatseginak, Debagoieneko Hiltegia esaterako, eta oso haserre agertu ziren bertako bizilagunak hasierako egitasmoarekin. Bestetik, aukeraturako lur eremua Zubillagako saihesbidea egiteko gordeta dagoela esan zuen Oñatiko Udalak.

ESKORIATZA

2 Hego amerikarrei ongi etorria

Bederatzi hego amerikar gure artean izango dira datozen lau asteetan. Guatemalatik, Txia-



pasetik eta Nikaraguatik datoz, besteak beste, taldeko kideak. Astelehenean iritsi ziren Eskoriatzara, Mundukide programan parte hartzeko, eta ongi etorria egin zitzaion Humanitate Fakultatean, aureskua eta Goikobaluren emanaldi batekin. Mun-

dukide egitasmoaren barruan, esperientziak trukatzeari da bisita honen helburua. Helburu honen ildotik, kooperatibismoa gertutik ezagutzeko aukera izango dute gure artean. Era berean, bisitariak euren herrialdeetan duten esperientziaren berri ere emango dute

egunotan, bai unibertsitatean zein bestelako zentroetan ere; eskabidea nondik datorren, haraxe joango dira.

BERGARA

3 Algodonera ixteko asmoa

Tavex Taldeko Zuzendaritzak azaldu duenaren arabera, urtero 400 eta 500 milio pta.ko galerak ditu Taldeak. Hori dela eta, derrigorrezkoa da gaur egun galera horiek eragiten dituzten jarduerak etetea, harigintza eta oihalgintza dira jarduera horiek, Bergarako San Antonioko lantegian egiten direnak.

Baina zuzendaritzak azaldu duenez, asmoa ez da lantegia egun batetik bestera ixtea, langile kopurua gutxitu eta gelditzen diren guztiak San Prudentzioko lantegian batzea baizik.

Zuzendaritzak sindikatuei aurkeztu dien planaren arabera, 70 lanpostu soberan daude eta hauek aurrejubilazio, baja boluntario eta leku aldatzeekin kenduko lirarteke. Gauzak horrela, 112 langilerekin geldituko litzateke Bergarako Tavex Taldea. Lantegiak hartzen duen lurzorua ere saltzeko asmoa badago.



**Zure hildakoen eskela,
eskerrona edo urteurrena
jarri nahi baduzu,
oraintxe duzu aukera
Arrasate Pressen eta ATBn.**

Argibideak ☎ 943 71 23 91

astea bi hitzetan

■ **Larrialdiak bat eginda**

Otsailean anbulatorioko eta ospitaleko larrialdi zerbitzuak batu egin dira. Horren aurrean, ospitaleko enpresa batzordeak eta CCOO eta LAB sindikatueta ordezkariek larrialdi zerbitzua kolapsatu egingo dela salatu dute. Garai batean PAC (Anbulatorioko Larrialdi Zerbitzua) izan zena errekuperatzea eskatzen dute, baina ospitaletik kanpo, hau da, berriz ere anbulatorioan.

Jose Luis Angulo, ospitaleko kudeatzailearen ustez, ordea, bateratzeak zerbitzu hori eraginkorragoa izaten lagunduko du. Bere esanetan, ez da egia jendeak gehiago itxaron beharko duenik, zerbitzua hobetu egin delako. 70-75 larrialdi kasu ikusten dira gaur egun ospitalean eta zerbitzu horri aurre egiteko gai da.

■ **Lokalak etxebizitza**

Herriko lokalak etxebizitza

bihurtu ahal izateko arautegia prestatzen ari da Arrasateko Udala. Izan ere, gero eta jende gehiago hasi omen da lokalak etxebizitza moduan erabiltzen. Horrez gain, modu berri honekin, etxebizitza kopurua handitzea lortuko da eta Mondragoen dagoen etxebizitza urritasuna ikusita, udalari erabilgarria iruditu zaio bide berria.

Exebizitza moduan erabili daitezkeen lokalak zeintzuk izango diren arautuko du arautegi berriak. Baita bizi baldintzek zer nolakoak izan behar duten ere.

■ **300 zuhaitz gehiago**

Garagartza inguruan 300 zuhaitz gehiago daude pasaden ostiralaz geroztik. Arrasateko Zuhaitz Eguna zela eta, Arrasateko Udalak eta Ingurugiro Eskolak deituta, 300 pertsona (haurrak eta erretiratuak) Garagartzara gerturatu zen, zuhaitz bana landatzera. Pagoak, haritzak

eta gaztainondoak landatu zituzten, horiexek baitira Euskal Herriko jatorrizko zuhaitzetako batzuk.

Landaketa honetan, Arrasateko ikastetxe guztiek hartu zuten parte, eta erretiratuei dagokienez, iazko kopurua bikoiztu egin zen.

Eguna borobiltzeko, parte-hatzaile bakoitzari lore bana oparitu zitzaion. Gela bakoitzari ingurugiro hiztegia ere eman zitzaion, naturarekiko erantzunkizunak ikasgeletan jarraipena izan dezan.

■ **Asfalto berria**

Olarte kaleko goiko aldea asfaltatzen ibili dira aste honetan.

Olarte kalearen goiko alde horretatik hasi da udala Alde Zaharrerako duen egitasmoa garatzen.

Orain, lehen zati horretako lanak bukatuta, asfaltatu egin dute kalea eta ondorioz, kalea itxita izan da automobilentzat bi egunez.

■ **MU eta Eusko Ikaskuntza**

Mondragon Unibertsitateak elkarlanerako hitzarmena sinatu du Eusko Ikaskuntzarekin. Datozen bost urteetan jakintza-eremuetan bide berriak urratzeko asmoa dute bi erakundeek.

Hitzarmenaren helburuak betetzen direla ziurtatzeko jarraipen batzorde bat eratuko da, erakunde bietako sei lagunek osatutakoa.



“Eta beste gauza bat oso inportantia: orain arte bezala, gero be España-ko printze eta printzesak euskal arrazako neska-mutil lerdanak aukeratu ahal izango ditue hazitarako. Bai horixe. Horren faltarik ez daukagu hemen. Dana dala, euskal errege-familixa zahar baten ondorenguak bilau biharra dago bizkor. Aritzatarrak ahal bada. (Norbaitek esango du hor dagola Pedro I.a Naparro-kua, baina hori frantsesa da, eta gainera itsusixa, eta hazitarako ez dot ikusten. Horrek ez luke eusko labelik konsegiduko, ezta rekomendaziñuakin be). Aritzaga, Aritzabaleta, Aristi (badira Urrestillan), Arizmendi... apelduko famelixen artian kastin bat egin biharko da, eta bat aukeratu. ederrena; tonto samarrak badie be etxako ardura. Monarkixia pozik euki bihar da beti. Izan be, oker ez banago, erregiak dauka azkenengo firmia”.

JUAN MARTIN
“ELEXPURTZ” ELEXPURU
 Putz
 (2000ko martxoa)

Peque chollo

AURREZTU %70 BERRIA BEZALAXE EROSITA

Jantziak (0-16 urte) • Haurrentzako den-dena • Haurdunaldirako jantziak • Mozorroak • Jostailuak • Oihalak • Liburuak • Kaseteak • Bideok • Dekorazio osagarriak

Isasi kalea, 18 / EIBAR / Tel.: 943 20 03 10 **Interesatuko zaizu!**

Umeentzako gauzen SALEROSKETA

Ez bota... Ez gorde... Ez oparitu...

SALDU!!

Autodeterminazioaren defentsan



“Zure hitzari eutsiz” leloarekin etorri ziren Eusko Alkartasunako kideak Monterroñera. Madrilen ordezkari zuten abertzalea izatea eskaini zuten alderdiak bildutako. Euskaldunen nahiak eta eskubideak Madrilen esigituko dituztela adierazi zuten EAko ordezkariak.

Begoña Errazti, EAko lehendakaria, Begoña Lasagabaster, Gipuzkoako zerrenda burua, Karlos Garaikoetxea, lehendakari ohia eta Arrasateko EAko zinegotziak izan ziren mitinean.

EAJ jo eta fuego



Aste honetan EAJ lan eta lan ibili da Mondragoen. Astelehenean Xabier Albistur, Elena Etxegoien eta Jose Luis Madrazo Laubide plazan izan ziren hauteskunde propaganda banatzen.

Asteazkenean, berriz Amaia Antzokia jendez gainezka zegoen EAJ alderdiko hautagaien zain. Xabier Arzalluz, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, Idoia Zenarruzabeitia lehendakari ordea, Joseba Egibar eta Joxe Joan Gonzalez de Txabarri izan ziren. Botua EAJrentzat eskatzeaz gain, abstentzioak Alderdi Popularraren alde jokatu lukeela adierazi zuten, besteak beste.

Sindikalak abstentzioarekin



Abstentzia eskatu zuten LAB sindikatuko kideek domekarako. Astezkenean prentsaurrea eman zuten aipatutako sindikatuak Mondragoeko egoitzan. Adierazitakoaren arabera, egoera politiko berrian sartu garenez, oraintxe da Madrilekiko harremana apurtzeko garaia.

Langileekin zerikusia duen guztia hemendik arautu behar ko litzatekeela uste du LAB sindikatuak eta horrexegatik eskatzen du abstentzia.

Goienkaria berezia

Honelakoetan ohi dugunez, hauteskunde inguruko herriz herriko informazio zehatza eskaintzeko asmoz, egunkari berezia plazaratuko dugu astelehenean.

Oraingo honetan, baina, benetan berezia da, izan ere Goienkaria (Debagoieneko aldiria) estreinatu egingo da hauteskundeetako emaitzen berri emanez.

20.000 ale banatuko dira

Elgeta, Antzuola, Bergara, Oñati, Mondragoe, Aretxabaleta, Eskoriatza, Gatzaga eta Aramaion.

Goizean goiz ohiko egunkariekin batera hartu ahal izango da kioskoan. Horrez gain, okindegietan, goiz zabaltzen duten tabernetan, hainbat lantokitan eta ikastetxe eta udaletxeetan... ere eskuratu ahal izango da. Betiko moduan, doan banatuko da.

Hautagai arrasatearrak

- **Joseba Ugalde Mendieta (Ezker Batua)**
Kongresurako Gipuzkoako 3. hautagaia.
- **Maria Angeles Iñurrategi (EAJ)**
Kongresurako Gipuzkoako 5. hautagaia.
- **Jose Antonio Altuna “Txatillo” (EA)**
Senaturako Gipuzkoako lehenengo hautagaia.
- **Matilde Martin Delgado (PSE)**
Kongresurako Gipuzkoako bigarren ordezkaria.

Ikasleak haserre



Ikasleak pailazoz mozarrotu ziren salaketak egiteko.

Eskola Politeknikoko "Euskal Presoak Euskal Herrira" taldea haserre dago Kontseilu Errektoreak talde honen lana eskolaz kanpoko jarduera moduan onartu ez duelako. Horrez gain, Kontseilu Errektoreak abenduan erabakitakoaren arabera, "Euskal Presoak Euskal Herrira" ez da talde antolatu moduan ikusten. Erabaki honekin ikasurte hasieran Kontseilu Sozia-

lak emandako onespena ezeztatu egin zuen eta talde sortu berria eskolaren babesik gabe utzi zuen.

Horren aurrean, Eskola Politeknikoaren jarrera gogor salatu dute taldeko kideek. Besteak beste, ikasleak hitzik eta iritzirik bariko pailazo bihurtu nahi dituztela salatu dute aste honetan eskainitako prentsaurrean.

Energia hizpide

Mondragoen sortu berri den talde ekologistak antolatutako hitzaldi sortaren bigarren saioa datorren asteazkenean izango da.

Bigarren hitzaldi honetan ere, energia gehiago produzitzeko aurreikusita dauden egitasmo erraldoiak izango dira hizpide. Baina oraingo honetan, zentral eolikoez gain, inguruan dauden eta egingo diren zentral termikoak, Zierbena-ko super portuan eraikiko den regasifikadora eta zentral termikoen gaia aztertuko dira, besteak beste. Ekologisten ustez, egitasmo hauek denak

hemen behar dugun baino energia gehiago lortzeko besterik ez dira, beraz, energia hori salduz irabazi ekonomikoak lortzea da benetako helburua. Era berean, mota honetako egitasmo erraldoiek ingurugiroari kalte handia egiten diotela ere azaldu nahi dute ekologistek hitzaldi sorta hauen bitartez.

Hitzaldia udaletxeko osoko bilkura aretoan izango da arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Hizlaria, berriz, Abiadura Handiko Trenaren aurkako asanbleako kide bat izango da.

Dirulaguntza eskaera

Arrasateko Udalak dirulaguntzak banatu behar ditu gizarte gaiak lantzen dituzten talde eta erakundeen artean.

Eskaerak aurkezteko epea

martxoaren 31n bukatzen da. Eskaera eredia eta aurkeztu beharreko dokumentazioa udaletxeko gizarte zerbitzuan jaso daiteke.

Bi mozioei, bai

Pasa den astean hileroko osoko bilkurari buruzko albistean, Fernando Buesa eta Jorge Diez ertzainaren hilketaren inguruan bi mozio aurkeztu ziren, bata Eudel elkartearena eta bestea EH alderdiak aurkeztutakoa. Bozketen ondoren, bi mozioak onartu ziren.

Epaiketak herrian

Delituak ez diren lege haustea Mondragoen epaituko dira laister. Bake epailea arduratuko da epaiketak egiteaz. Mondragoen dagoen bake epaitegiko lehenengo pisuan epaituko dira kasuak.

Gaztea hilda

Adin txikiko gazte bat hilda aurkitu zuten eguaztenean Altamira auzoan. Gaueko 20:30ak inguruan DYako anbulantzia gerturatu zen eta gaztea Eskualdeko Ospitale-
ra eraman zuen.

Jaiotzak

- Oihan Ozaeta Perez de Arana. Martxoaren 4an.
- Joseba López Cuesta. Martxoaren 5ean.

Hildakoak

- Rafael Sanchez Nuñez. Otsailaren 9an. 63 urte.
- Cipriana Garcia Garcia. Otsailaren 13an. 82 urte.
- Josefa Gallastegi Lamarain. Otsailaren 25ean. 96 urte.
- Gregorio Arregi Loidi. Otsailaren 26an. 80 urte.
- Prudencia Murillo Gallego. Otsailaren 27an. 81 urte.
- Claudia Ugalde Iturbe. Otsailaren 29an. 84 urte.
- Maria Arkauz Eraña. Martxoaren 5ean. 83 urte.

Ezkontzak

- Jesus Martin Herrero eta Maria Dolores Reche Fuentes. Otsailaren 12an.
- Sixto Frutos Pavo eta Arantza Uribesalgo Muxika. Otsailaren 26an.

Lagun ugari presoan alde



Presoen eskubideak aldarrikatu nahian, jende ugari gerturatu zen igandean Aretxabaletan egin zen kale agerraldira. Deba-goienerako presoan aldeko

plataformak antolatuta, "Euskal presoak Euskal Herrira" leloarekin 2.000 lagun inguru atera zen kalera antolatzaileen esanetan.

Zerbitzu berriak San Juan de Dios ospitalean



San Juan de Dios ospitaleak bi zentro berri inauguratu zituen pasa den larunbatean: Aldi Baterako Zentroa eta Egune-ko Ospitale Psikogeriatrikoa, hain zuzen ere. Modu honetan, aurrerantzean, erietzeratzeko beharrik ez duten gaixoak ere

tratatu ahal izango dira Santa Ageda auzoko ospitalean.

Hurrengo pausua ambulatorioa jartzea litzateke. Diagnostikoak eta sortzen diren ke-kei erantzuna eman eta bide batez famili-giroa indartu nahi dute.

Martxoaren 8an ekitaldi ugari



Makina bat ekitaldi izan zen Emakumearen Nazioarteko Egunean Arrasateko Udalak eta Emakumeen Kontseiluak antolatuta. Kale-animazioa, ipuin kon-

takizunak, AEDren lokale-tan helduentzako saioa Txatxikontalariekin eta bukatzeko, kale agerraldia. Erakusketa ere ireki zen Harresin. Martxoaren 14 arte.

Kanpo zorraren herri kontsulta

Kanpo Zorra Ezabatze-ko Bilkurak, martxoaren 12rako herri kontsulta antolatu du. Kanpo Zorrari buruzko galdeketa izango da eta hauteskundeetan bezala, mahaiaik eta begiraleak jarri-ko dira dena ondo atera dadin. Arrasaten 8 mahai jarriko dira, 7 hautes mahaian ondoan eta 1 herriko plazan. Aretxabale-

tan, berriz, herriko plazan jarri-ko da mahaia. Herri kontsulta GKEek antolatu dute. Euren ustez "kanpo zorra Hirugarren Munduko herrialdeen garapena gauzatzea oztopatzen du". Kontsultaren helburua "Espainiako Gobernuarengain presioa egiteko asmoz honek kanpo zorra kendu dezan".

Liburutegi eta areto berriak Politeknikoarentzat

Pasa den igandean, komunikabide batek Eskola Politeknikoak handitzeko duen egitasmoen berri eman zuen. LKSk egindako aurreproiektu bat aipatzen zen artikuluan, hain zuzen ere.

LKSn azaldu digutenez, LKS injeniaritzak aurreproiektu bat egin du Eskola Politeknikoarentzat. Iturripe kiroldegiaren ondoan Olandixora begira legokeen eraikin baten inguruko aurreproiektua da.

Bertan adierazten denez, 4.000 m² nahi dira eskolaren egitasmoa garatzeko. 4.000 m² hauetan, hiru gunetan banatuta, lau areto nagusi eta liburutegia kokatuko lirateke. Areto nagusi bakoitzak batz bestete 100 ikaslerentzako lekua izango du. Liburutegian, berriz, gutxienez 250 lagun sartu ahal izango da. Bi solairu izango ditu bibliotekak, gainera, bata, ia 185 pertsonan-

tzako lekuarekin, ikasteko gune moduan erabiliko dena eta bestea, irakurketa lantzeko izango dena, 150 pertsona ingururantzako lekuarekin.

Era berean, lurpeko solairu bat edo bi izatea ere aurreikusita da LKSk egin duen aurreproiektuan. Aparkalekuak egongo lirateke hor.

Aipatutako hiru gune horien tartean plaza bat eta aterpe bat egongo dira.

Hori dena, esan bezala, Iturripe kiroldegiaren ondo-ondoan eraikiko litzateke. Otsailen kontatu genizuen, hor ondoko 1.800 metro karraturi buruz lortu dute akordioa udalarekin. Orain 70 bat apartakaleku dauden gune horretako arau subsidiarioak aldatuta daude eta, beraz, legearen arabera posible da bertan eraikitzea.

Horrek, baina, ez du ezer esan nahi, oraindik aurreproiektua besterik ez da eta.

HIES

EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiraletan Setatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99

ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Trataera txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 ▪ Tel: 943 79 48 77 ▪ ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

MOZORROAK SALGAI

AEDko Gazte Taldekoak haratuzteeta-
rako jantziak saltzen ibili ziren
otsailaren 28tik martxoaren 4ra.

Frantziskotarren lokalean jarri zuten
azoka, eta nahi beste mozorro egon da
aukeran. Baina salmenta ez zaie uste
bezain ongi
joan.



ZEIN GOXOAK!

18 emakumek hartu zuten parte Zahar
Berrik antolatutako torrada lehiaketan.
Torradarik goxoenak Jone Sagastarenak eta
Miren Larrañagarenak izan ziren, ordena
horretan. Sari banaketaren ondoren,
bertaratutako guztien artean
banatu ziren torradak.
A zer tripakada!

IZENAK

Onintza Lopez de Munain

27 urteko arra-
satear hau da
Debaguneko
(Debagoi-
neko euskara
taldeen elkar-
tea) presidentea
otsailaren 24tik. Magisteritza eta
Gizarte Heziketa ikasketak egin
ditu. Ekin emakume elkartean,
Euskalaren eta 2000.eko gida
komertziala egiten aritu da lane-
an orain arte, besteak beste.





ZINEMAGINTZA LORAN

Hainbat arrasatear *Illarri* film laburra grabatzen aritu ziren joan den ostegun eta ostiralean. Ostegunean Apotzako hilerrian harrapatu genituen. Tartean, Maider Egües eta bere ama, Marga Ergialde. Zuzendari lanetan Manu Gonzalez mondragoetarra ari da Aitor Mantxola oñatiarraren laguntzarekin.

GORA INAUTERIAK!

Jende ugari mozorrotu zen asteartean, inauteri egunéan. Pailazoak, untxiak, indioak, bakeroak... ez zen ezer falta Arrasaten. Guk herriko plazan harrapatu genituen hauek, Gari, Montxo eta Jose Lontxo pailazoei begira-begira. Egun guztiak inauteri balira, sikira...

EDERTO!

Musakola Herri Eskolakoek haratuzteak ospatu zituzten ostiralean. Goizean torradak jan zituzten eta arratsaldean, berriz, pinguino dantza egin zuten Takolo, Pirritx eta Porrotxen kantu baten erritmoan.



**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tel.: 943 79 13 78



Edertu

Ile apaindegia • Solariuma

Berritu zure itxura!

San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28
ARRASATE

**ARRASATE
HOTELA**



Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16
ARRASATE




ARRASATE
KIROLAK

Bizi kirola, maitatu natura.



Peak Performance

Kontzeziño, 8 • Tel.: 943 79 46 12 • ARRASATE



*"Garbi daukat Madrilen egon behar dela,
aurpegia eman behar dela"*

EA, zure hitzari eutsiz

Begoña Lasagabaster



Han egonda bakarrik defenda ditzakegu gure eskubideak tinko eta koherentziaz.

Begoña Errazti



Ezin da aukerarik galdu Euskal Herriaren etorkizuna erabakitzen den erakunde guzti-guztietan esku hartzeko.

Jose Antonio Altuna



Bakeak eta euskal arazoaren irtenbide politikoak gizartearen esku egon behar duela aldarrikatzen badugu, kontsekuenteak izan eta Madrilen egon beharra daukagu.



Euskal Sozialdemokrazia



TXIRIGOTAK AL ANDALUSEN

“Los Profesionales” izenburuko txirigotak izan zituzten Al Andalusen egoitzan larunbatean. Feminismoa, ejerzitoak, ezkontzak... dozenaka gai landu zituzten kantu ironiko eta maltzurren bidez. Ez dago gaizki!

MAHAIAREN BUELTAN

Bi kinto afari izan ziren joan den zapatuan. 1946an jaiotakoek San Frantziskon meza entzun zuten 12:30ean, eta ondoren Hotel Mondrago-

nen bazkaldu. 1930ean jaiotakoek, berriz, Musakolako hostalean egin zuten bazkaria, meza entzun eta gero.



AL

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

UNZUETA

J A T E T X E A

- Eguneko menua
- Espezialitatea: Txuleta parrilan
- Karta

Zabola auzoa. ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 95

UGARTE

**Industria
hornidurak**

Arrasate pasealekua
Tel.: 943-79 83 96 / 943 - 79 23 00
Faxa: 943 - 793412

Larrialdiak estu eta larria

“Atzo istripua izan zenean, anbulantzia 20 minutura etorri zen; zeharo urduri geunden zain geunden guztiok”. “Bai, joan den egunean etxerako eskatu behar izan genuen anbulantzia eta etorri orduko larrialdia pasatuta genuen”.



Antzuolan du egoitza Debagoienek larrialdietaz arduratzen den taldeak.

Behin baino gehiagotan entzun izan ditugu gehienok mota honetako adierazpenak eta egia galantak diren arren, hurrengoan ere berriro egoera errepikatu egiten da. Normala da hala izatea, izan ere, orain DYA elkar-teak Antzuolan duen boluntarioen taldea bakar-bakarrik dabil Debagoieneko herrietan gertatzen diren larrialdietan. Gainera, larrialdi horien

abisuak nahiko berandu hel-tzen zaizkie, burokrazia dela eta.

15 lagun dira, hiru anbulantzia dituzte eta ahalegina egin arren, ezin dira larrialdi guztietara nahi bezain azkar heldu. Are gehiago, 24 orduak betetzeko zerbitzu bakarra dute.

Ez talde honek ezta DYA-ko beste taldeek ere, ez dute behar adina laguntza erakundeetatik; hori dela eta, ezin dute

lana behar bezala bete.

Eta ez luke horrela izan behar, larrialdi unetan minutuak erabakigarriak izan baitaitezke.

ESKU ALDAKETA

Egoera hau, baina, berria da. Duela urte eta erdi, bi elkar-te zeuden larrialdiak zaintzen: Gurutze Gorria eta DYA. Larrialdi bat izaten zen unean elkar-te biak ziztu bizian ateratzen ziren.

7-8 urte inguru lan horretan jardun ondoren, Gurutze Gorriak Eusko Jaurlaritzarekin ika-mikak izan zituen. Diru gehiagoren eskaera Gurutze Gorriaren aldetik eta ezeko erantzuna Jaurlaritzaren aldetik; horixe izan da horren eragile.

Ordutik orain arte, zerbitzu soziala ematen aritu da. Eta honen ondorioz, DYA bakarrik geratu da larrialdiak betetzeko.

B11

Hauxe da Debagoieneko larrialdiak zaintzen dituen taldearen izena. 1983. urteko ekainean ireki zuten egoitza Antzuolan. Orain, hamabost persona ari dira borondatez, DYAn ohi den moduan. Beste bi ATS soldatepean dabil-

tza. Lantalde honetan, gidariak, sorosleak eta mediku bakarra dago. Telefonoz larrialdi abisua jaso eta bost minutuan bertaratzeko gaitasuna dute. Oraingo egoeran, baina, ezinezko izaten dute. Hasteko, Antzuolan dago elkar-te honen egoitza. Berez, horrek ere nahikoa zailtzen du larrialdia izan den lekura garaiz heltzea. Bigarrenik, larrialdia izan eta Antzuolako DYAk abisua jasotzen duenera arte 20 minutu ere pasatu izan dira behin baino gehiagotan. Horren zergatia larrialdi deiak koordinatzen diren zerbitzuan bilatu beharko genuke: orain SOS Deiak elkar-tearen arduraren horretan, hain zuzen ere. Hirugarrenik, larrialdi baten



Larrialdi baten abisua jaso eta bost m...

azkenaldian

abisua jaso eta anbulantziak bere lana bukatzen duen arte, 45-60 minutu pasa daitezke. Gaixoa behar bezala atenditzeko behar du DYA elkarteak aipatutako denbora.

Beraz, tarte horretan beste zerbait gertatuz gero, ez dago hori atenditzerik.


Laugarrenik, DYako langile guztiak boluntarioak dira. 3 txandatan zatikatuz gero, anbulantzia bat erabiltzeko, txanda bakoitzerako 9 lagun behar dira. Honetaz gain, kontuan hartu behar da, boluntarioak direnez, jeneralean lan arazoak ere izaten dituztela. Era berean, jende falta nabarmena dute DYAn.

Azkenik, anbulantzia larrialdi batera itenda dago-

ela, egoera larriago baterako deia jasoz gero, bigarrena betetzera joan ohi da. Lehen eskaera ahal duten moduan betetzen dute. Gehienetan telefonoz aholku batzuk ematen dituzte eta ondoren, anbulantziak noiz iritsiko den zehazten dute.

LARRIALDI KOORDINADORA

1979. urtean, etorkizunerako ezinbesteko zerbitzu bihurtuko den sistema berria abian jarri zen DYAn: Gipuzkoako larrialdien koordinadora. Sistema honen bitartez, 943 46 46 22 zenbaki bakarra ezarri zen Gipuzkoa osoko larrialdietarako. Izugarri azkartzen eta errazten du neurri horrek sorosleen lana. Ondorioz,



ANTZUOLAKO EGOITZA

Garai hartan ordezkari berria sortzea garrantzitsua zen oso, bertako istripuetara zetozen lagunak Eibartik etorri behar izaten baitzuten eta nolabait, kakagunea Antzuolan bertan egotekotan, denbora aurreztuko zute.

Estraineko ikastaro honetatik ez zen behar adina lagun atera eta bigarren bat antolatu zuten. Modu honetan 24 orduko zerbitzua bete zezaketen eta ordezkari berria sortzeari ekin zioten.

Hasiera batean 40 bat lagunek osatzen zuten ordezkari haur eta hasieratik ere udaletxeak jarri zien lokal bat euren eginkizunetarako.

Egoitza berri hau 1983ko irailaren 22an inauguratu zen, lehendik martxan bazen ere. Arrasate eta Bergarako udalek urtero nolabaiteko dirulaguntzak ematen dituzte. Baita Aretxabaletak ere noizbait.

DYaren 25. urteurreneko liburitik aterata.

B 11 (BEHARRAK)

Personala 9 lagun anbulantziako egun bakoitzean

Anbulantziak 2-3 anbulantzia
1 medikuduna,
beste, mediku gabea.

24 orduko zerbitzu bat . . . beste bat ere egokia litzateke.
Eta baita medikalizatua ere.

B11 (ORAINGO EGOERA)

Personala guztira, 15 lagun

Anbulantziak 2 anbulantzia eta
4x4 auto bat.

Babesgunea Debagoiena

24 orduko zerbitzua bakarra, astebukaeretan bi.

Larrialdi kopurua 1.380 urtean
138 azaroan, 205 abenduan
(hauetatik 21, Urte Zahar egunean
iluntzeko 20:00etatik goizeko 8:00ak arte.
Hilean 150, batez beste.

gerora, Euskal Herriko zein Espainiako zerbitzu ugartan erabiltzen hasten dira sistema berri hau: Polizian, Ertzaintzan...

Honela sortu zen 088 telefonoa, ondoren 112 izango zena.

NORA DEITU

Hiru bide daude, beraz, larrialdi unetan erabiltzeko. Haste-ko, Antzuolako egoitzak telefono zuzena du: 943787157 zenbakira dei egin daiteke anbulantzia eskatzeko.

Osakidetzak ere badu bes-

SARRERAK

12 milioi 5 milioi Eusko Jaurlaritzatik eta gainerakoa enpresa eta kolaboratzaileengandik.

1997. urteko sarrera orokorra 92.514.446 pezeta.
(Gipuzkoan)

GASTUAK

Anbulantzia batek 7 milioi pezeta urtean
adb. hilean
100.000 pezeta gasolinatan,
urtean 600.000 pezeta aseguruan.

Gastua 96.000.000 pasatxo.
(Gipuzkoan)
Beraz, urtero lau milioi pezetako defizita izaten dute.

te telefono bat horretarako: 943461111. UTE izena hartzen du zerbitzu horrek (Unidad Territorial de Emergencias, gazteleraz).

Goian aipatu bezala, hirugarren taldean SOS Deiak dago, 112 telefonoa, hain zuzen ere.

Berez, azken hau da bereziki bultzatzen den telefono zenbakia. Hauxe da era berean, burokrasia gehien jasaten duena. Ondorioz, deiak motelago bideratzen dira eta horrek denbora galerak ekarri ohi ditu.

Gogoratu, beraz, ambulantiari deitzeko telefono zuzena 943 464622 dela.

IRTENBIDEA

Ikusten da, beraz, egoera ez dela oso ona. Badirudi, gainera, Eusko Jaurlaritza ere ohartu dela honetaz. Astekari honetan ditugun azken berrien arabera, litekeena da Gurutze Gorria berriro ere larrialdiak betetzen hastea.

Hori horrela bada, laster 24 orduko bi ambulanziaz izango dira Debagoiena zaintzen.

MONDRAGOERA

Horrez gain, Mondragoen kokagune bat lortzeko lanean dabil DYA, Mondragoe baita Debagoieneko erdigunea. Honek, noski, izugarri erraztuko lieke lana, inguruko herrietara askoz ere azkarrago helduko lirateke-elako.

Hori nahikoa izango den? Agian bai; hala ere, diru gehiagok egoera hobetzen lagunduko lukeela argi dago; borondatez lan egiten dutenek ere eskertuko lukete. Liberatu gehiago legoke, kokagune berriak, material gehiago eta hobeak...

DYAk kideek, adibidez, ambulanziaz medikalizatua beharrezko ikusten dute. ■

Ubane Madera

LEHEN NOLA?

1980. urte inguruan ez zegoen ambulanziarik inguru honetan, orduan auto partikularrak erabiltzen ziren larrialdi egoeretan.

Arrasateko Udalean, baina, Ingurugiro eta Osasun zerbitzuan lanean zebiltzan hiru lagunek (Mikel Larunbek, Mari Karmen Goñik eta Joxe Murgiak) ambulanziaz beharrezkoa zela eta margolariek erabiltzen duten furgoneta altu horietako bat erostea proposatu zuten. Eta honelaxe iritsi zen Mondragoera lehenengo ambulanziaz. Joxeren esanetan, "diesela zen, indar gutxikoa. Gatzagatik gora igo ezinda ibiltzen zen askotan. Euriarekin labandu egiten zen... orduan udaleko aurrekontua txikia zen eta zeukagunarekin moldatu behar...". Taxistak hasi ziren gidari lanak betetzen eta ondoren, udaltzainen txanda izango zen. Larrialdi egoera zegoenak Osasun Zentrora deitzen zuen. Hangoek taxisten zerrenda bat zuten eta tokatzen zitzaionari deitzen zioten, gaua edo eguna izan, beraz, 24 orduko zerbitzua eskaintzen zen. Gero gauza bera egingo zuten udaltzainekin.

Bitxikeria moduan Joxek zera kontatu digu: "eztabaida galanta izan genuen ambulanzian idatzi beharreko erro-tulua zela eta. Azkenean besterik barik "ΑΙΣΤΗΛΑΒΙΑ" jarri genuen, euskarazko izena eta autoen atzerako ispi-lua erabiliz zuzen irakurtzeko erro-tulua".

Gurutze Gorria San Prudentziora etorri zenean desagertu zen Arrasateko Udaleko ambulanziaz.



**Erosi duten ambulanziaz
bihotzekoa izan duten
gaixoak berpizteko
aparailua ere badu.**

Eskaintza

Montura + Leiar progresiboak



Azken belaunaldiko leiar progresiboak eta zuk behar duzun montura

19.900
pta.tik aurrera

Egokitzeko bermearekin.
Ados ez bazaude, dirua bueltatuko dizugu.

Andra Mari, 8 • Tel.: 94 620 29 86
Grupo San Ignacio • Tel.: 94 681 84 92

DURANGO

Erdiko Kale, 22 • Tel.: 943 79 71 68
Hiper Eroski • Tel.: 943 79 78 26

ARRASATE

Erdiko Kale, 21 • Tel.: 943 60 31 54

MUTRIKU



**INSTITUTO
OPTICO**



LOS VAQUEROS

denda berria

Zerkaosteta, 3

beharrezkoak

gara



Ezker Batua

eman botoa



Aurkitzen al duzu?



Horrenbeste jertse bildu zituen honek, gero horberarena bilatu ezinik aritu behar! "Miluk" ez zuen arazo hori izan. "Berogailua" beti du aldean.

Emaitzak

A taldea

Ume Zikinak 5 - AC Surkos 7
 Betrayer 4 - DA Iriztu 1
 Xhasss Ug. 11 - Atxanta el R. 5
 Goma 2 6 - Kobate DKB 3
 Irati STS 12 - Etxe Mobil 3
 Giralduilla Con. 2 - AT Lokala 6
 You Know 11 - Fraguel Gol 4

B taldea

Aldibi 4 - Txeyenex 9
 Koka Juniors 8 - Sas T 7
 IKP 10 - Makanudos 4
 Etxerat Tab. 1 - Timoftol 3
 Borrock & Roll 5 - Garaje Oscar 7
 Alai Gozokiak 3 - Leya 5
 Kamasutra 3 - Makai 3
 Dribling 2 - Aurrera Bolie 0
 Branka Tab. 7 - AKTA 5

GEHIEGI ERE EZ DA ONA
 Batekin nahiko ez, eta joan den astean Zaldibarko txapelketan ari den jokalaririk batek bi norgehiagokara jokatu zituen. Baina bi taldeekin egin zuen hori, Makai taldearekin eta Diego Antonio Iriztu taldearekin. Hori dela eta, Zaldibarko anto-

lakuntzak neurriak hartu zituela adierazi zuen asteleheneroko bileretan.

ARRASATE  **KIROLAK**
 Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

Hurrengo partidak / 16. jardunaldia

Iarunbata, 11

Zaldibar	Epailea
09:50 Potroak - Kamasutra	(Driblin)
11:00 Garaje Oscar - Dribling	(Petroak)
12:00 Goma 2 - Komando Alpagat	(Garaje Oscar)
13:00 Aurrea Bolie - Borronck & Roll	(Goma 2)
14:00 Leya - Sas T	(Borrock & Roll)
15:00 Kanpazar Harro. - Kobate Harro.	
16:00 AC Surkos - Irati STS	(Kanpazar Harro.)
17:00 Koka Juniors - Branka Tab.	(Irati STS)
18:00 Alai Gozokiak - Txeyenex	(Branka Tab.)
19:00 AKTA - Etxerat Tab.	(Txeyenex)

Iturripe A	Epailea
15:50 Makai - Serengeti	(Etxe Mobil)
17:00 Etxe Mobil - Betrayer	(Serengeti)

Iturripe B	Epailea
15:50 Fraguel Gol - Saukelu Scream	(Timoftol)
17:00 Timoftol - Makanudos	(Saukelu Scream)

igandea, 12

Zaldibar	Epailea
11:50 DA Iriztu - Xhasss Ugarte	(Orlando)
13:00 Orlando Piratas - You Know	(Xhasss Ugarte)

Atsedena: AT Lokala, Giralduilla, IKP, Aldibi, Ume Zikinak, Atxanta el Retorno.

SASKIBALOIA Etxean ikusgarri

Igoera aldiko bigarren partida jokatu zuen larunbatean Arrasate Kencik eta garrantzitsuen lortutako garaipena izan zen. Baina estuasun ederrak pasatu zituzten arrasatearrek Kalagorrikoen aurka. Lehen zatian etxeko taldea nagusi izan zen. 20 puntuko alde izan zuten. Bigarrean kanpoko taldeak defentsa hobea egin zuen eta presio handia nabaritzen zen nafarren partetik. Defentsa ona egiteaz gain, jaurtiketetan ere askoz ere finago ibili ziren. Aldea gutxitzen joan zen. Azken minutuetan etxeko taldea fin ibili zen eta jaurtiketa libretan asmatuz, markagailuari etsi zion. Azken emaitza Arrasate Kencik 72 Calahorra 67. Aste honetan Transportes Lesaka Calasancio taldearen aurka arituko dira.

FUTBOLA Inauterietan, irabazi

Ohorezko gazteek ez zuten inauterietako atsedenaldirik izan joan den asteburuan. Mariñoren aurka aritu ziren Atxabalpen, baina ondo ibili ziren. Izan ere 3 eta 0 irabazi zuten etxekok. Lehen zatian oso ondo jokatu zuten mondragoetarrek eta gol aukera asko izan zuten. Horietako hiru, gainera, gol izan ziren. Gauzak horrela, bigarren zatian lehenengoan lortutako emaitzari eusteko asmotan zelairatu zen etxeko hamaikakoa eta erritmoa piska bat jaitsi egin zen. Gol aukerak ere gutxitu egin ziren eta etxekok defentsa sendotu egin zuten, Mariñok ez zuen golik sartzeko aukerarik izan. Azkenean 3 eta 0 amaitu zen partida. Aste honetan Hondarribira abiatuko dira.

ERRUGBIA Eguraldi petrala

Euria, haizea eta, azkenean, lokatza nagusi. Hori xe zen Eibarko errugbi zelaiaren egoera joan den larunbatean. Eta horrek zailtasun asko sortu zizkien Eibar eta Arrasateko errugbi jokalariei, baina egoera eskaseta arrasatearrek ondo moldatzen direla eta, eurak izan ziren nagusi; nahiz eta baloia beti lurra ibili zen, oso laban zegoelako. Eta horrekin batera, gainera, aspaldian gertatzen den bezala, aurrelariak (meleak) nahiko ahul ibili ziren. Baina oztopo horiek guztiak gainditzen jakin zuten eta entsegua, dropa eta zigor-kolpe baten ondoren, 5 eta 11 irabaztea lortu zuten. Izan ere, eibartarrek entsegu bat lortu zuten.

Aste honetan etxean arituko dira Getxoren aurka.

ESKUBALOIA Kadeteek bakarrik

Joan den asteburuan kadeteek bakarrik izan zuten asteroko konpromisoa. Eta ez zuten zorte handirik izan. Hondarribiraino joan eta gero, azkenean esku hutsik itzuli ziren. Izan ere, hondarribitarrek ez zuten etxeko zaleen aurrean galdu nahi izan eta bi taldeen arteko alde oso handia izan ez zen arren, azkenean puntuak Hondarribin gelditu ziren. Partida 17 eta 11 amaitu zen.

Aste honetan derbia jokatu dute etxean, Bergararen aurka, larunbatean arratsaldeko 16:00etan.

Gazte mailakoak ere etxean arituko dira Elgoibarko Pneumax Egoi, 17:30.

Seniorrek, berriz, Mutriuren aurka jokatuko dute, kanpoan.

Emaitzak

SASKIBALOIA

- **Seniorrak:** Kenci Arrasate 72 - Calahorra 67

PILOTA

Udaberri txapelketa

- **Kadeteak:** Arrasate 22 - Hernani 5
- **Afizionatuak:** Arrasate 15 - Billabona 22

Debarroko txapelketa

- **Kadeteak:** Arrasate 11 - Antzuola 22
- **Seniorrak:** Arrasate 22 - Antzuola 14

FUTBOLA

- **Ohorezko gazteak:** Mondra 3 - Mariño 0
- **Bigarren gazteak:** Arrasate 4 - Axular (Aiete) 1

ERRUGBIA

- **Seniorrak:** Eibar 5 - Arrasate 11

ESKUBALOIA

- **Kadeteak:** Hondarribi 17 - Arrasate 11

Jokatzeak

SASKIBALOIA

- **Seniorrak:** Transportes Lesaka Calasancio - Kenci Arrasate

PILOTA

Udaberri txapelketa (final erdiak, zapatua, 11:30).

- **Lehen urteko kadeteak:** Arrasate - Añorga
- **Bigarren urteko kadeteak:** Arrasate - Altza

Debarrokotxapelketa, (asteazkena, 19:00)

- **Arrasate - Aretxabaleta**

ERRUGBIA

- **Seniorrak:** Arrasate - Getxo (larunbata, 16:30)
- **Gazteak:** Bilbo - Arrasate
- **Kadeteak:** Durango - Arrasate

FUTBOLA

- **Lehen errejioanala:** Urola - Mondra
- **Ohorezko gazteak:** Hondarribia - Mondra
- **Ohorezko kadeteak:** Ondarruko Aurrera - Arrasate
- **2. kadeteak:** Arrasate - Eibartarrak (larunbata, 11:00)
- **Infantilak:** Arrasate - Tolosa (larunbata, 16:30)
- **Neskak:** Ilintxa - Mondra

ESKUBALOIA

- **Kadete:** Arrasate - Bergara, (larunbata, 16:00)
- **Gazte maila:** Arrasate - Elgoibar (larunbata, 17:30)
- **Seniorrak:** Mutriku - Arrasate Almen

Aste honetan azkena, Zarautzen

Azken aurrekoa Oñatin jokatuzuten eta aste honetan Zarautzen izango dute Gipuzkoako trialsin txapelketako azken proba.

Arantzazun ere junior, infantil, alebin, benjamin eta emakumezkoak aritu ziren. Guztira 66 neska-mutiko eta guztiak bost gunetan prestatutako ibilbidean aritu ziren, igandeko eguraldi ona aprobetxatuz.

Nestor eta Xabier Kortabaria anaiak izan ziren Arantzazun bailara honetako ordezkari bakarrak. Nestor Kortabaria junior mailan lehiatu zen eta seigarren geratu zen. Bere anaia Xabier alebin mailan ibili zen eta hirugarren bukatu zuen.



Eguraldi ona egin zien Oñatin ere, joan den igandean.

FINALA

Igandean Zarauzko Abaldao industrialdean jokatuko da txapelketako azken proba eta orduan jakingo dugu Gipuz-

koako triasil txapelketako maila bakoitzean garaile zein izango den. Dena den, arrasatearrek ez dute aukera askorik sailkapena kontuan izanda.


Aspe ere Uarkapen

Aspe pilota enpresak ere hitzartu du dagoeneko Uarkape Udal Pilotalekuan jokatuko beharreko pilota partidak. Lehenengoa apirilaren lehenengoa izango da eta buruz buruko txapelketako bigarren itzuliko partida izango da. Hori dela eta, Aspe eta Asegarce taldeko bikote bana arituko dira.

Bigarren partida maiatzaren 26an izango da. Hau, ordea, txapelketatik kanpo. Beraz, jaialdi berezia izango da.

Gauzak horrela, hemendik eta San Juanak bitartean, profesionalen lau partida jokatuko dira. Lehenengoa datorren zapatuan, Asegarcek antolatuta. Apirilaren lehenengoa Asperena. Hirugarrena maiatzaren 26an izango da, Asperen eskutik eta azkenik, San Juan egunean, Asegarcek antolatutako jaialdi bereziarekin

Txikienek ere ikuskizun bikaina



Arrasateko gimnasta benjaminen oso maila ona erakutsi zuten Iturripen.

Gipuzkoako Eskolarteko Benjamin mailako Gimnasia erritmikoko Topaketa izan zuten herriko gimnasta gazteenek joan den asteburuan. Iturripen Arrasateko ez gain, Bergara, Eibar eta Oñatiko ikastetxeetako gimnastak ere aritu ziren. San Frantzisko Xabier Ikastolako neskatoek ordezkatu zuten Arrasate.

Taldeka 3 taldek hartu zuten parte, tartean SFX ikas-

tolako bi, sei neskatoz osatua bata eta bost neskatoz osatua. Banaka 24 naskatxo aritu ziren, hauetako 9 arrasatearrak. Topaketa hauen helburua neska gazteek jendurrean aritzeari beldurra galtzea da eta horretan aritu ziren larunbatean Iturripen. Helburu honekin beste hiru topaketa egingo dira, nahiz eta oraindik zehaztu gabe egon Gipuzkoako zein hiru herritan izango diren.



ARRASATE
KIROLAK

Erantzuna badakizu, ekarri osteguna baino lehen Arrasate Pressera.

Hilaren bukaeran irabazleen artean zozketa egingo da zuzenean Mondrasport saioan, sari mundiala etxeratzeke.

Aurreko asteko erantzuna: Astore kirol markarekin sinatu du Asegarcek kontratua.

Galdere: Ba al du Arrasate Kirolak Saskibaloi taldeak web orrialdea interneten?

Erantzuna:

Izen-abizenak:

Helbidea: Tel.:

Infantilen gorabeherak



Arrasate Kirol Proiektuan ari diren neska-mutikoak bailarako txapelketak ere jokatzen dituzte eta batzuk bukatuta eta besteak bukatzeaz daudenean, AKPko gazteentzat gauzak nahiko txukun joan direla esan behar dugu. Saskibaloian amaitu da bailarako liga eta eta neska taldeak finalera iristea lortu du. Asteburu honetan, gainera, itzuliko partida jokatuko dute infantil mailako neskek. Ez dute erronka makala. Joaneko partidari bi puntugatik galdu egin zuten. Hori dela eta, oraingoan garai-pena alde handiagoarekin lortu beharko dute. Gipuzkoako



txapelketarako txartela eskuratuko dute kasu horretan.

Mutilak ere aritu dira saskibaloian eta hauetako bi talde finalaurrekoetara heldu ziren. Asteburu honetan fina-

la jokatuko dute. Hauek ere, beraz, Gipuzkoako txapelketaren atarian daude eta dena ondo ateraz gero, AKPko talde ugari ikusiko dugu Gipuzkoako txapelketa jokatzen.

Futbol txapelketa ere amaitu da eta San Frantzisko Xabier ikastolako mutilak Gipuzkoako txapelketaren atarian gelditu dira. Izan ere, Almen ikastola sailkatu da lehenengo eta bigarrena, berriz, Kurtzebarri izan da. Beraz, bi hauek sailkatuko dira.

IBILALDI NEURTUA

Joan den astean esan genizuen igandean Eskolarteko Ibilaldi neurtua izango dela Eibarren. AKPko haurrak ere joango dira.

Irteera besteetan baino goizago izango da, 08:00etan, Garibai kaletik.

Asteburuko hitzorduak

Martxoak 11, larunbata

👉 AURREKIROLA (Finalak)

Jturripe

- 09:30** La Merced - Aramaio
SFX D - SFX E
- 10:15** S. Viator A - S. Viator B
SFX A - SFX B
- 11:00** Musakola - SFX U/4
S. Andres - Erguin A + B
- 11:45** SFX U/3 - SFX C

👉 MULTIKIROLA NESKAK

Gazteluondo

- 10:15** S. Viator B - SFX U
- 11:00** SFX A - Erguin
La Merced - S. Viator A

MUTILAK

Gazteluondo

- 09:30** Erguin - S. Viator C
SFX U - S. Viator A
- 10:15** SFX B - SFX C
- 11:45** Aramaio - S. Viator B
La Merced - SFX A

👉 INFANTILAK SASKIBALOA

MUTILAK

- 11:30** Arrasate B - Txan. DBH2B
Aozaratz 2 - S. Viator

NESKAK

- S. Viator
- 10:30** S. Viator - BHI Kurtz.

FUTBOLA NESKAK

Ipintza

- 10:00** Aranzadi A - La Merced
Aranzadi B - SFX A

MUTILAK

Musakola

- 10:00** SFX - Ipintza DBH
- Jbarra
- 10:00** Kurtzebarri - La Merced



Multikiroleko Erguin taldea.



Igerikerako infantilak.

MAITE BARREÑA (AUKERA BERDINTASUNEN ADITUA)

“Euskal Herriko pobreenak emakumeak gara”

Zientzia Politikoak ikasi ondoren, aukera berdintasunean espezializatu zen 31 urteko durangar hau. Arrasateko, Ermuako eta Bilboko Udalean Emakume saileko teknikari moduan lan egin izan du. Gaur egun, Bizkaiko Batzar Orokorretan EHren koordinatzaile lanetan dihardu. Datorren martitzenean “Euskal Herriko emakumeen erronkak” hitzaldia emango du Monterronen.



—Zeintzuk dira eguneroko bizitzan emakumeen oztopo nagusiak?

—Egunero jasaten dugun biolentzia da gure zama handiena, bereizkeria oro biolentzia baita, neurri batean.

—Administrazioan egiten duzu lan. Nolakoa da egoera arlo horretan?

—Politikan eta administrazioan, emakumea ez da esistitzen.

Gizonezkoen arazoei irtenbidea aurkitzeko gizonak egiten duten jarduera da politika, eta gaur egun ez zaie emakumeon ardurei erantzunik ematen.

—Adibidez?

—Lanaren kasua. Etxeko ardurez gain, etxetik kanpoko lanak gehitu zaizkigu emakumeoi, baina gizonen kasuan ez da gauza bera gertatu; hau da, ez dira esparru pribatura pasatu. Hor sortu diren arazoei administrazioak ez die erantzunik eman.

—Nola konpondu daiteke hori?

—Gizarte ereduaren aldaketaren bidez. Hasteko, bai gizonak, bai emakumeak, hainbat ardura hartu behar ditugu arlo pribatuan, gero arlo publikoan kalitatezko lana era egokian

egiteko. Baina ezinbestekoa da administrazioak gaurko arazoei erantzutea. Adibidez, jendea gero eta luzaroago bizi da, eta pentsa ezinezkoa da pertsona nagusi horien zainketa ardua guztia emakumeok eramatea, orain arte bezala. Berdin gertatzen da umeen zainketa ere. Era honetako egoerei administrazioak eman behar die erantzuna.

—Zeintzuk dira euskal emakumeon erronkak?

—Euskal Herria lurralde aberatsa den arren, aberastasun horren %80 gizonen esku dago. Beraz, euskal emakumeon lehen erronka aberastasunaren banaketa lortzea izango litzateke. Lan egoerarekin oso lotuta dago hori: Euskal Herriko

pobreenak emakumeak gara, ordaindu gabeko lan gehiena geuk egiten dugulako. Beraz, lana ere banatu egin behar da, bai etxean, bai kanpoan. Banaketa honek gizarte guztiari egingo dio mesede, gizon eta emakumeon arteko elkartasuna ekarriko duelako. Hori lortzeko neurri politikoak ezinbestekoak dira, lan araudi berria eta diru banaketa egokiagoa, esaterako: euskal gizarteko talderik pobreena emakumeok osatzen dugunez, administrazioak egiten duen banaketan orain baino zati handiagoa egokitu behar zaigu, ez hainbeste diruz, zerbitzu moduan baizik. Eta honekin lotuta, beste erronka bat dugu: Euskal Herria marko politiko berriak eraikitzeko bidean dago eta ezinezkoa da gizarte hobea eraikitzea emakumeon parte hartzerik gabe.

—Zenbaterainoko parte hartzea du euskal emakumeak esparru publikoan?

—Urte askotan heziketa jakin bat jaso dugu, eta horren eraginak gaur egun iraun egiten du, oso gaitza delako horri buelta ematea. Dena dela, gauzak aldatuz doaz eta gero eta emakume gehiago dago politikan, erakundeetan eta giza taldeetan lanean, baina ez niri gustatuko litzaidakeen beste. Lobbyak sortu beharko genituzke, elkarrekin ditugun ideiak aurkitu eta plazaratzeko. Eta hori gizonetakoekin elkarlanean egin beharra dago.

—Nola definituko zenuke, hitz gutxitan, euskal emakumea?

—Zaila da, baina zeozer azpimarratzekotan, borrokarako prest dagoen emakumea dela esango nuke.


“Ezinezkoa da gizarte hobea eraikitzea emakumeon parte hartzerik gabe”

Eskola Antzerki jardunaldiak, abian

Asteartean aurkeztu ziren Arrasateko Udalak eta Ikas-tetxeek elkarlanean antolatutako X. Eskola-Antzerki jardunaldiak. Institutuaren parte hartzea da aurtengo berrikuntza. Aurreko urteetan bezala, hiru fasetan egingo dira. Lehenengoan, Lehen Hezikuntzako hiru zikloetako eta DBHko lehenengo zikloko ikasleentzat antzerki-talde profesionalen emanaldiak antolatuko dituzte.

Baina ikasleak ere antzezteko lanetan arituko dira. Jardunaldien bigarren eta hirugarren faseetan izango da hori. Eta ez edonon, Amaia Antzokian baizik. Hantxe taularatu dituzte Almen, San Viator, San Frantzisko Xabier, La Merced eta Institutuko ikasleek euren antzezlanak.

Jardunaldi hauek hainbat helburu dituzte. Batetik, ikas-



Jose Ramon Arkauz eta Jon Garai aurkezpenean.

leengan antzerki zaletasuna indartu nahi da. Horrez gain, antzerkiaren alde hezigarria ere ezagutarazi nahi dute.

Hainbat antzerki saio aurreikusi da, jardunaldien lehenengo fase moduan. Martxoaren 13an izango da lehenena. *Kaioa eta Katua* izango da taularatu den antzezlan.

Jardunaldien bigarren fasean, Amaia Antzokiko instalazioak erakutsiko dizkie ikasleei Andoni Zubiaga antzokiko arduradun teknikoak. Azkenik, hirugarren fasean, DBHko ikasleak antzezte bihurtuko dira, apirilaren 5ean eta 6ean Amaian eskainiko dituzten saioetan.

Nolako gaztetxea nahi duzu?

Aurtengo aurrekontuetan, 75 milioi pezeta jarri ditu udalak gaztetxe berria egiteko, eta datozen bi urteetarako beste 125 aurreikusi ditu. Gaztetxeeko kideek bilera bat antolatuko dute gaztetxearen antolakuntza finkatzeko. Bilera horretan udal ordezkariak ere egongo dira eta Arrasateko gazte guztiak ere gonbidatu nahi dituzte AGAKOko kideek. Bilera 19:00etan izango da, gaztetxean. Finantziarioa ziurtatuta dagoenez, antolakuntza besterik ez da falta, eta hori da hilaren 17an, ostegunean, bilera landuko den gaia.


J. Lopez Zulueta Toki-Ederren



Aste honetatik hasita eta hila-bete osoan, erakusketa berri bati emango dio ostatu San Andres auzoko Toki-Eder kafetegiak. Jesus Lopez Zulueta margolariaren hamahiru lan daude bertako paretetan. Bat izan ezik, beste guztiak salgai daude, 50.000 eta 300.000 pezeta arteko salneurrietan. *Amanecer* deitutakoa da salgai ez dagoen bakarra, lehieketa batean lehen saria irabazi zuelako. Bilbon sortu zen 1940an Jesus Lopez Zulueta, baina gaur egun Beasainen bizi da. Lanbidez dekoratzailea da eta horregatik, margogintzarekiko harreman estua izan du beti.

Zientzia ere dibertigarria da

Zientziaren etengabeko aurre-urapenek txundituta uzten gaituzte sarritan. Bestetan, zientzia aspergarria dela pentsatzen dugu. Uste hauen bien aurka egiteko, eta zientzia dibertigarria izan daitekeela frogatzeko, Zientziaren KutxaGunea erakusketa antolatuko du Kutxak, eta joan den astetik ikusgai dugu erakusketa ibiltari hori Monterronen, Udaleko Kultura sailaren eskutik. Erakusketa honen helburua Kutxak Donostiako Miramonen eraikiko duen parke teknologikoa aurkeztea da. Udaberrian zabalduko den parke honetan zientziaren mundua bere sail anitzetan izango da ikusgai: lurra, komunikabideak, argia,



Miramongo parkearen maketa dago ikusgai Monterronen.

mekanika, zentzumenak... Miramongo parke hau erakusketa interaktiboa izango da, eta bertan ikusi eta gozatu ahal izango denaren aurkezpena da Monterronen

martitzenera arte ikusgai duguna. Bisita ordutegia ondorengoa da: lanegunetan, 18:00-20:00, eta larunbat eta jai egunetan, gainera, 12:00-14:00etara.

irakurle eta entzule

Iturria: Jungla disc CD kluba eta Putzen erredakzioa.

diskoak

AC/DC
Stiff Upper Lip (Warner)



Zai zituen jarraitzaileak AC/DC taldeak, baziren eta bost urte estudio diorik argitaratzen ez zutela. Ziur

euren emaitza berri honek aseko dituela. Hau ez da *Highway to Hell* edo *Back in Black* bezalako punta-puntako albuma, baina haien kalitate mailatik nahiko gertu geratzen da, hala ere. Gainera, agertokietan AC/DCk bezainbat urte daramatzaten talde askoren bekatutxotik ihes egin dute hauek: arrakasta zaharrak behin eta berriz kopiatzetik, alegia. AC/DCren zaleek talde honek barra-barra erakusten dituen indarra eta umorea aurkituko dituzte disko berri honetan. Biltzen dituen hamabi abestietatik, *Meltdown*, *Hold me Back* eta, batez ere, *Can't Stop Rock'n'Roll* dira azpimarragarrienak.

aldizkariak

PUTZ, 2. zenbakia
450 pezeta



Satirikoa, umoretsua, kritikoa, serioa... Adjetibo hauek denak ezarri dakizkioke Arrasaten egiten den Putz bihilabetekariari. Horrela ikusi genuen bere lehen

zenbakian, eta berriro egiaztatzeko aukera dugu, argitaratu berri baita bigarren zenbakia. Euskal kultura eta politikari zuzenki edo zeharkako begirada ematen dio Putzek, beti ere irreberentzia ikutu probokatzailer batekin. Edukien arteko kontrastea ere Putzen ezaugarri da: euskal artisten elkarriketen edo euskal presoen aldeko ekintzen erreportajeen ondoren, asmatutako elkarriketa barregarriak daude, horietako bat Bernardo Atxagarena. Originaltasuna, ironia eta kalitatea biltzen ditu Putzen bigarren zenbaki honek.

asteko filma



La playa

(The Beach). EEBB, 2000, drama.
Zuzendaria: Danny Boyle.
Aktoreak: Leonardo DiCaprio, Tilda Swinton, Virginie Ledoyen.

HARIA

Errealitatearen eta ametsaren arteko borroka lantzen du La Playa filmak. Bizitzaz gogait eginda dagoen gazte bat da protagonista. Kasualitateak lurralde liluragarri bateraino eramaten du. Baina laster konturatuko da paradisuaz dagoela han.

KRIKITA

Asmo onak ugari ditu filme honek, baina emaitzak ez dira gogo horien pareko. Estereotipoak barra-barra agertzen dira, eta kontaktak kili-kolo egiten du sarritan. Fox bezalako Hollywoodeko produktora handi batekin lan egitearen prezioa ote?

asteburuan zer

kontzertuak

HIP HOP JAIALDIA GO-JAMEN

Hip hop musika estiloaren zaleek Bergarako Go-Jamen dute ondo pasatzeko aukera. Bertan izango da zapatuan, 22:00etan, Frank T musikaria, Espainiako goi mailako rapperoa. *Frankattack* du izenburua bere emaitza berriak, eta adituen ustez orain arteko borobilena da. Inoiz baino abesti pertsonalagoak jorratu ditu rapper honek, eta, berrikuntza moduan, emozio handiko letrak eskaintzen ditu. Bere emanaldia izango da gaueko plater nagusia, baina ezin ditugu ahaztu *El Imperio* taldekoak, hip hopeko errebelazio taldea. *DjZetak* goizera arte izango zaituzte dantzan bere nahasketekin.

ZORIONAK, HIRUKOTE!



Gaizka Untzueta Irasuegi, Dani Molinero Castro eta Jabi Sanchez Crespo izan dira aste honetako zozketako irabazleak. Jam aretoan eguakitzean L7 eta

Pussycats taldeek eskainiko duten kontzerturako sarrera bana eskuratu dute. Argazkian, Edu Abasolo, Soinuz Blai-ko aurkezlea, irabazleen kupioekin.

kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO KONTZERTUETARAKO SARRERAK.
 Martxoak 17: **SA** eta **Eraso**
 Martxoak 18: **Martires del Compas**

3 sarrera zozketatzen ditugu.
 (Zozketa ostegunean ATBko Soinuz Blai saloan egingo da)

Izen-deiturak:

Tel.:

Bidalitza gura: Arrasate Press, Otalora 31, Arrasate.

MIKEL IRIZAR (GOIENAKO BATERATZAILEA)

“ATB desagertu egingo da”

Arkoren sorreran egon zen eta orain Goiena kooperatiba sortzeko taldean ari da. Bera da bailarako komunikabide zerbitzua izango den elkartearen bateratzailea. Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Aramaio, Arrasate, Bergara, Oñati, Antzuola eta Elgetako euskara elkarteak izango dira Goienako bazkide nagusiak. Bailarako telebistarekin hasiko da Goiena, baina idatzizko komunikabideak, irratia eta telematika ere landuko ditu aurrerantzean.

— Zer da Goiena?

— Lehen bailaran herri komunikabideen arloan egin den lanari segida ematera datorren egitasmoa. Bailaran lan handia egin duten sei aldizkari, bi irratia eta hiru telebista daude.

— Zure lana aldi baterako laga eta Goienaren aldeko apustua egin duzu. Zergatik?

— Arkoren sorreran betebetean ibili nintzen. Nire lanaz gainezko kontu bat izan zen. Orain dedikazio handiagoa behar zenez, gustatzen zaidalako eta benetan sinisten dudalako, aurrera egitea erabaki nuen. Uretara harri bat botatzen denean bere uhinak zabalitzen dira eta geurea ere horrelako zerbitu izan daiteke.

— Goienak zela funtzionatuko du?

— Indarrak batzeko oso urrats garrantzitsuak eman ditu. Orain dela bost urte ez zen posible. Gaur egun eskualde kontzeptua nahiko indartua dago eta horregatik, posible da Goiena. Herri bakoitzak bere nortasunetik zer gorde nahi duen eta zer konpartitu nahi duen jakiteko balioko duen esperimentu interesgarria izango da.

— Zer motatako enpresa izango da?

— Kooperatiba. Berezitasuna izango da bere administrazio kontseiluan euskara elkarteak egongo direla. Debagoieneko herritar guztiak ordezkariak dituen ordezkariak egongo dira. Bazkide nagusiak bailarako bederatzia herrietako euskara elkarteak izango dira. Udalek ere bazkide izateko aukera izango dute. Langileek (20-25) euren ordezkariak izango dituz-

te eta bestelako laguntzaileak batzen badira, bada, ongi etorri.

— Zer ekarri diezaiolke herri bakoitzak proiektuari?

— Bere nortasuna eta eskarmentua. Ez dugu proiektu standar eta ideal bat sortu; bakoitzak bere nortasuna

“Debagoienean dagoen multzo homogeneorik handiena da Goiena”

“da GoiTB sortzean”

izango du eta horrek emango dio Goienari aberastasuna, errotuta egongo delako herri bakoitzaren historian eta izaieran.

— Nolako babesa dauka Goienak?

— Dagoeneko herrietako euskara elkarteak batzar orokorrak egiten hasi dira eta gehienetan aldeko apustua egin da. Goiena sustengatzen duen debagoienarren kopurua 2.500 ingurukoa izango da, ziur asko Debagoiengan dagoen multzo homogeneousik handiena.

— Orain arte zer jarrera izan dute instituzioek?

— Udaletan aurkeztu da eta lehen harrera behintzat ona izan da. Aurrekontuetan partidaren bat ere aurreikusi da. Aldundian eta Jaurlaritzan ere interes handia dute. Kezka handia dute etorkizunean datorkigun informazioaren

gizartea seinalaz betea datorrelako eta ez direlako gutaz eta gure hizkuntzaz arituko. Egitura bat sortu behar da horri aurre egiteko, gure nortasuna eta hizkuntza ezaba ez daitezzen. Gure proiektua erreferentzia bat izan daitekeela uste dute, antzeko egitasmoak beste eskualdeetan ere garatzeko. Laster, honetan berriak izango ditugula uste dut.

— Autofinantziazioa ala diru laguntzak?

— Gaur egun bailaran dauen komunikabideetan ondo egin den gauza bat elkarlana da. Helburuak interes orokorrekoak badira, ezinbestekoa da administrazioak ere laguntzea. Baina diru laguntzak oso konpromiso mugatua izan behar du. Zerbitzuak eskainiko ditugu eta administrazioak diruz lagunduko ditu, baina helburu gisa erdia baino gutxiago izatea planteiatzen dugu.

Portzentaje jakin bat estaliko duena eta ez falta denerako zaku bat.

— ETBrekin aritu zarete?

— ETBk ere kezka bera du. Datorkigun uholdearekin bere euskarazko telebistak kuota galduko du eta indar puntu garrantzitsu bat bere sustarrak beheruntz zabaltzea litzateke eta eskualdekako sare bat eratztea. Honela, beste inork eratu ezingo lukeen egitura zabal bat izango luke.

— Zer gertatuko da ATB eta Arrasate Pressekin?

— ATB desagertu egingo da Goiena telebista sortzean, baina gauza hobea eta indartsuago bati bide emateko desagertuko da. Hamar urte bete eta indarrez ospatu eta gero, gainera.

ATBk eredu bat sortu du eta gai da bere burua entregatzeko proiektu eraginkorrago

baten alde.

Arrasate Pressi buruz, segitu egingo du eta ikusi egin beharko da Goienak bere idatzizko medioak garatzen dituen heinean nola moldatu. Egunkaria egingo balitz, herrietako astekariak begiratu beharko dira, ia bi euskarriak nola osatu.

— Noiz hasiko da Goiena?

— Datorren astelehenean hauteskondeei buruzko bailarra osorako lehen Goienkaria aterako dugu. Bestela, ezin dugu egutegia erabat zehaztu, baina udaberrian gauzak loratzen direnez, Goiena ere udaberrian loratuko da.

Telematika da informazioaren beste arlo bat, irekitzen ari den beste arlo bat. Printzipioz ahal duguna beteko dugu, euskaraz eta geure ezagarrarekin eta aurten egitasmo garbi bat egingo dugu horretaz. ■

Goienkaria

Ohiko tokietan doan: kiosko, okindegi, taberna... Astelehen goizean, eskatu eta eroan Goienkaria berezia.



Astelehenean Goienkarian:

- Hauteskundeetako emaitza guztiak.
- Eskualdeko eta herriz herriko datuak.
- Informazio zehatz eta osatuena.

ATB

Programazioa

OSTIRALA, 10

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta berakatza.**
- 13:50 **Zortziko txikian** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Astebete.** Asteko berrien errepaso.
- 22:00 **Gatza eta berakatza.**
- 22:10 **Soinuz Blai,** Miren Gonzalezekin.



Miren Gonzalez.

LARUNBATA, 11

- 13:30 Asteko saioen errepika: **Gatza eta berakatza, Inauteriak 2000, Gatza eta berakatza, Guganda eta Soinuz Blai.**

IGANDEA, 12

- 13:30 Asteko saioen errepika: **Gatza eta berakatza, Inauteriak 2000, Gatza eta berakatza, Guganda eta Soinuz Blai.**
- 20:00 **Hauteskundeak 2000.** Maria Agirrek aurkeztutako saio berezia, Mikel Irizar eta Mikel Lezamizen laguntzarekin. Hauteskunde egunaren jarraipena bailaran.

ASTELEHENA, 13

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.** Bixente Pagoagak, Mitarte Garai jatetxeko sukaldariak, babarrunak prestatuko ditu.
- 13:50 **Hauteskundeak 2000** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Mondrasport.**
- 22:00 **Gatza eta Berakatza** (errepika).

ASTEARTEA, 14

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.** Eulali Mazkiarane, Matikuako sukaldariak, zainzuri beteak gertatuko ditu.
- 13:50 **Mondrasport** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Hamaika Magazin.** Sexualitatea, osasuna, lorezaintza, margolariak eta bidaiak Arantzazu Lagunillak, Ubane Maderak, Monika Monterok eta Leire Kortabarriak egiten duten saioan.



Arantzazu Lagunilla.

- 22:00 **Gatza eta Berakatza** (errepika).

ASTEAZKENA, 15

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.** Uxarteko Kontxi Juantorena sukaldariak aguakate eta txaka entsalada prestatuko du.
- 13:50 **Hamaika Magazin** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak**
- 21:30 **Aurrez aurre.** Edurne Mujikak aurkeztuta.



Edurne Mujika.

- 22:00 **Gatza eta Berakatza** (errepika).

OSTEGUNA, 16

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.** Barazki budina izango dugu gaur, Elizondoko Igor Ezpeleta sukaldariaren eskutik.
- 13:50 **Aurrez aurre.**
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**

- 21:30 **Zortziko Txikian** Anartz Agirrekin



Anartz Agirre.

- 22:00 **Gatza eta Berakatza** (errepika).
- 22:15 **Soinuz Blai** Miren Gonzalezekin

OSTIRALA, 17

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.** Oñatiko Zelai-Zabaleko Alberto Elortzak gari esparrako krema babatxoekin prestatuko du.
- 13:50 **Zortziko Txikian** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Astebete.**
- 22:00 **Gatza eta Berakatza.**
- 22:15 **Soinuz Blai** Miren Gonzalezekin.

Gatza eta Berakatza

PLATERAK: Sarrerakoak

NOIZ	PLATERA
Astelehena 13	Babarrunak
Astearte 14	Zainzuri beteak
Asteazkena 15	Aguakate eta txaka entsalada
Osteguna 16	Barazki budina
Ostirala 17	Gari esparrago krema babatxoekin

Mahai inguru lasaia

Hiru aldaketa gertatu ziren joan den astean orrialde hone-tan iragarri genituen izenetan: Jesus Egigurenen ordez Jose Luis Elorza beasaindarra etorri zen (PSE-EE); Antton Karre-raren partez, berriz, Ricardo Ortega lasartearra (EB); Par-tidu Popularrak, oster, ez zuen ordezkariarik bidali. Gai-nerako gonbidatuak —J. Egibar (EAJ), J. Permach (EH) eta G. Knörr (EA)— hemen izan ziren. Denak mahaiaren buel-tan Maria Agirrerekin.

Mahai inguruaren lehen zatian ordezkari bakoitzak bere alderdiaren asmoak azaldu zituen. Bigarren, eztabai-da piztu zen, lasaia jenerale-an eta gizalgez egindakoa.

Politikariak librean ibili zirenean, ETaren gaiak hartu zuen indarra eta horrek eraman zuen denbora dexente. Bake-bidea ere izan zen hizpide: su

etena, Lizarra-Garazi, Ipar Irlanda, etab.

Jendeak ere deitu zuen telefonoz. Arrasate ingurutik igaroko den AHTaz galdetu zuten. Jeltzaleek, sozialistek eta EAK aldeko jarrera azaldu zuten, ingurugiroan izan deza-keen inpaktoa ondo aztertu eta gero. EHk eta EBk, kon-trako iritzia azaldu zuten, ingu-rumenean eragin ditzakeen kalteengatik eta, lehenengoen iritzian, ez duelako balio Eus-kal Herria hezurmamitzeko.

Gai batean denak ados azaldu ziren, erreferendumak erabiltzearen aldeko agertu baitziren. “Agian planteiatu den hau urrutiegi tokatzen zai-gulako”, esan zuen batek. Nork daki.

Politikariak lasai ibili ziren herri telebista batean katea handi batean baino. Txikia izatearen abantailak.



Knörr, Egibar, Elorza, Permach eta Ortega, Maria Agirrerekin.

Bozketa eguna

Hauteskundeak 2000 igandea, 20:00



Mikel Irizar, Mikel Lezamiz eta Maria Agirre izango dira aurkezleak.

Sortu zenetik egin duen bezala, martxoaren 12an ere ATBk saio berezia eskaini-ko du hauteskundeak dire-la eta. Saioa arratsaldeko 20:00etan hasiko da, hau-teslekuak ixtearekin batera.

Udal hauteskundeetan legez, Maria Agirre kazeta-ri aretxabaletarrak aurkez-tu eta zuzenduko du saioa. Alboan Mikel Irizar eta Mikel Lezamiz izango ditu, iruzkinak egin eta egunaren gorabeherak aztertzeko.

ATBk Debagoieneko herri guztietako eta Ara-maioko emaitzak emango ditu. Horretarako bederatzi berriemaile izango ditu,

herriz herri banatuta.

Emaitzak, egunaren gorabeherak, buruzagi poli-tikoen jarraipena eta iri-tziak, pasadizoak eta ezus-tekoak. Denetik izango da igandeko saioan. Zenbait lekutan egingo den errefe-rendumari ere arreta bere-zia eskainiko zaio.

Saioaren azken partean telefonoa irekiko da. Beraz, hitz egin edo iritzia eman nahi duten herritarrek auke-ra ona izango dute horreta-rako.

Betiko moduan, Deba-goieneko informaziorik oso-ena eta bizkorrena, Arrasa-te Telebistan.

Hamaika Magazin eta Mondrasport saioetako sarituak



Marga Merkaderrek Hamaika Magazin saioak zozkatutako margolana irabazi du aste honetan. Arant-zazu Lagunilla aurkezleak eman zion, Artea Enmarka-zioak dendaren izenean. **Oskar Loitik** irabazi du Mondrasport zotz egindako Arrasate Kirolaketa otsaile-ko saria.



ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Torreviejan apartamentua salgai. Hondartzatik oso gertu. Tel.: 943 79 32 54 eta 480 61 81 07.

3. Errentan emateko

• Etxebizitza alokagai Benidormen, Plaza de Levanteren aurrealdean. Tel.: 946 80 09 53. Marisa.

• Gela bat alokagai. Tel.: 677 71 90 03, Eder. 636 92 07 86, Inaki.

• Etxea alokagai Unqueran (Kantabriar) asteburu, Aste Santu eta udarako. Tel.: 942 33 57 80.

• Etxebizitza alokagai Erdiko kalean. Tel.: 943 79 28 21. Denda orduetan.

• 3 gelatako etxea alokagai, Erdiko kalean. Tel.: 943 79 40 53.

4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza alokatu nahiko genduke, 3-4 laguntzat. Tel.: 943 77 03 36.

• Ikasle talde batek etxebizitza alokatu nahiko genduke Arrasaten, 3 edo 4 pertsonentzat. Tel.: 649 88 79 22. Eneritz.

• Gela bat alokatuko nuke. Tel.: 943 19 90 62. Alazne. 21:00etatik aurrera.

5. Etxeak osatzeko

• Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Langilea bada hobe. Tel.: 943 77 03 36. Ainhoa.

• Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko Zigarrolan. Tel.: 617 72 47 83.

• Bi lagun behar dira martxotik aurrera etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 77 16 54.

• Aretxabaletan etxebizitza konpartitzeko pertsona bat behar da. Tel.: egunez, 943 74 80 00. Iluntzean, 943 77 18 72. Amaia

GARAJEAK

7. Saldu

• Garajea salgai, Jose Luis Inarra pasealekuko 18an, Altamiran. Tel.: 943 79 23 27. 14:00 - 17:00 eta 20:00etatik aurrera.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

9. Errentan emateko

• Garajea alokatzen da Uarkape kalean. Tel.: 943 79 84 35.

• Bi garaje itxi alokatzen dira Arima zuri plazan, bietako bat bikoitza. Tel.: 656 75 91 98.

• Erdialdean dagoen garaje itxia alokagai. Tel.: 943 79 01 84. Edurne.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Taberna salgai Arrasaten, Udalpe kalea, 6. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 43 77.

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m²ko eta bi solairuko lokala salgai. Tel.: 943 79 18 70.

• Ferrerías 42an 25 m²ko lokal komertziala salgai. Prezio berezia. Tel.: 943 78 12 32

14. Errentan emateko

• Taberna alokagai Arrasaten, Udalpe kalea, 6. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 43 77.

LANA

17. Eskaintza

• Era guztietako lanak eta apunteak ordenadorez pasatzen ditut. Aukera zabala: letra eta tamaina gustukoena, marrazkiak, grafikoak, etab. Tel.: 646 09 53 38.

• Neska asteburuetan tabernari lanak egiteko prest. Tel.: 943 79 42 54.

• Esperientziadun neska prest etxeko garbiketarako orduka egiteko, umeak zaintzeko edo beste lanen bat egiteko. Tel.: 943 79 69 66. Ainhoa.

• Medikuntza lizentziatua gaixo nahiz pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 943 79 08 21.

• Enpresa zientzietan lizentziatua edozein lan egiteko prest. Tel.: 943 79 89 92.

18. Eskaerak

• Oxford-en (Ingalaterra) senar-emazte espainolek neska behar dute bi seme-alaba zaintzeko. Soldata, lana lutzatzeko aukera eta ingelesa ikasteko denbora eskaintzen da. Tel.:

945 25 31 12.

• Arrasaten kokatutako Informatika enpresak, informatikan diplomata edo lizentziatua behar du, C ezagupenak. Harremanetarako: 943 71 20 99.

• Kale-baserri batean pertsona bat behar da ortuan lan egiteko. Lur zati bat utziko zaio berak landu dezan, laguntasunaren trukean. Tel.: 943 79 10 95.

• Neska euskalduna behar da arratsaldez denda batean lan egiteko. Bidali datuak 258 posta kutxatilara.

• Zerbitzari euskalduna eta garbitasuna eramango duen pertsona behar dira jatetxe batean asteburuetan lan egiteko. Tel.: 945 44 50 86.

• Azokan lan egiteko laguntzailea behar da. Interesatuak deitu 619 21 91 72 telefonora.

• Aramaioko gastronomi elkarte baterako garbitzailea behar da. Tel.: 945 44 52 15.

• Emakume bat behar da jatetxe batean garbiketa lanak egiteko. Tel.: 943 79 24 58.

• Pertsona bat behar da tabernan lan egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

• Neska bat behar da bi neskatila zaintzeko, Garagartzan. Autoa badu, hobe. Larunbat edo igandean deitu 629 20 71 81 telefonora.

• Emakumea behar da bi neskatila zaintzeko. Tel.: 943 77 00 19.

• Pertsona euskalduna behar dugu sagardotegi batean zerbitzari lanak egiteko. Tel.: 945 44 53 85. Juanjo.

• Asteburuetan jangelan mahaiak zerbitzeko pertsona behar da. Tel.: 943 79 68 57.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Esperientzia eta EGA titulua duen lizentziatuak Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eskola partikularrak ematen ditu, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Tel.: 943 79 83 46.

• Ingeles filologia ikasten ari den mutilak, ingelesezko eskola partikularrak emango lituzke Mondragoen edo Eskoriatzan. Tel.: 943 71 47 85.

• Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut, maila guztiak. Tel.: 943 77 08 69.

21. Eskaerak

• DBHko 3. kurtsoa eskola partikularrak jasoko nituzke. Tel.: 943 79 66 05, goizez.

• Gorren hizkuntza edo LS dakien norbait behar dut praktikatzeko. Tel.: 607 31 02 66. Sonia.

• DBHko 3. mailako ikasleak eskola partikularrak jasoko lituzke. Tel.: 943 79 96 69.

MOTORRA

23. Saldu

• Citroen BX 16 salgai. SS-AB matrikula, IAT pasatu berria. Egoera onean. Tel.: 943 79 81 19.

• Renault Master furgoneta salgai. SS-0290-BF matrikula. 11.000 km. ditu. Mendirako prestatuta. Tel.: 943 79 95 89.

• 50 cc-tako motorra salgai. Bi urte-takoa, eta ia berria. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 09 31.

• Opel Astra GSi 2:0 autoa salgai. 115 zaldi, zuria. 1993koa. Tel.: 943 77 09 23. Roberto.

• Trial motorra Gasgas salgai, 250

cc-takoa. Tel.: 943 79 78 36. Unai.

• Motorra salgai. Suzuki GS-500 E, karenatua eta faro bikoitza. 25.000 km., aseguruia maiatzera arte, estrak, oso egoera onean. Tel.: 943 79 59 71. Mikel.

DENETARIK

26. Saldu

• Whipit piragua salgai, arrauna, bainuestalkia, eta bi puxika. 130.000 pta. Tel.: 943 79 78 36.

• Marrazteko mahaia, "Lester" marka alemaniarra, salgai. Berri berria da. 15.000 pta. Tel.: 943 79 25 10.

• Cocker txakurrak salgai. Tel.: 696 05 73 46.

• Soinu txikia salgai. Berria, zero-sette. Solen afinatua. 190.000 pta. Tel.: 945 27 44 26.

• Solarium APRO markakoa salgai, egoera onean. Tel.: 943 76 51 76. Leire.

• Emakumezkoen mendiko bizikleta, berri-berria salgai. 3 plater eta 6 pinoi. BH markakoa. Tel.: 943 79 96 37.

• Bi mostradore eta apala metalikoak salgai. Tel.: 666 95 79 83.

• Bigarren eskuko teklatura, Yamaha Portatone (PSR-200) elektronikoa, salgai. Prezio onean. Tel.: 943 79 93 07.

• Ehiza txakurra salgai. Oso ona. Tel.: 943 79 73 65. Jabi.

27. Erosi

• Mundu guztiko txanponak erosi, saldu edo aldatuko nituzke. Tel.: 943 79 54 55. Mikel. 20:00etatik aurrera.

• Diskoak, singelak eta LPak erosten ditut. Tel.: 943 52 65 77. Jose Luis.

31. Galdu

• Otalora kaleko farola baten ondoren tenazak galdu zitzaizkidan, kirtenak gorri kolorekoak dira. Tel.: 943 46 53 56.

• Urre zuriko erraztun bitxiduna galdu zait. Balio sentimental handiko da. Aurkitu baduzu, deitu mesedez, eskertuko dugu. Tel.: 943 79 23 17.

33. Bestelakoak

• Dieta pertsonalizatua Nutrikarekin. Tel.: 619 32 62 27.

32. Aurkitu

• Urrezko katea dominarekin, lñaki eta data jartzen duena, Udaltzaingoan dago jasota.

• Arrasate Pasealekuko "Bolintxo" okindegiaren inguruan, montura metalikoa eta koloreko kristalak dituzten betaurrekoak aurkitu nituen orain dela aste batzuk. Tel.: 943 79 47 56.

• Udalara bidean giltza batzuk agertu dira. Jabeak Larrinetxe tabernan jaso ditzake. Tel.: 943 79 22 15.

HARREMANAK


35. Kontaktuak

• Zaldia baduzu eta neurea zaintzeko aukera baduzu, tratu batera hel gaitzake. Tel.: 943 79 21 86. Jone.



AMAGARA

Erdiko kale, 54 behea • Tel.: 943 79 09 09 • ARRASATE



Udaberriko eskaintza

Presta ezazu zure azala udaberriko.

Martxoaren 13tik apirilaren 14ra.

SOLARIUM

6 saio + 1 doainik = 6.000 pta.



Mondragoan elurra egin zuela eta, 1948.eko otsailaren 22an elkarri elur-pilotak botatzeko asmoarekin mendira joan zen neska koadrila hau.

Ezkerretik hasita: Purita Iturbe, Arantza Ezkurra eta Margarita Lezeta.

Makurtuta, berriz, Julita Agirreureta eta Karmen Iturbe.

Ohiturak agintzen zuenez, gonekin joan ziren mendira. 60ko hamarkadara arte Mondragoan ez ziren praktikak erabiltzen hasi. Gure berriemaitetako bat izan zen (Gloria), besteak beste, praktikak erabiltzen lehena eta kontatu digunaren arabera, "Ferreriasetik Zigorrolaraino sekulakoak entzun behar izan genituen lehenengo aldian: probokatzen genbiltzala... Hori bai, gu iku-

sita, denbora gutxira neska gehienak hasi ziren erabiltzen".

Orduko elurteek eta oraingoek ere ez zuten antz handirik. "Orduan, uda uda izaten zen eta sekulakoa gainera, eta negua negua, benetan gogorra. Elurra egiten zuenean, ganoraz botatzen zuen. Kale garbitzaileek zerrautsa eta gatza bota behar izaten zuten jendea ez labantzeko". Teilatuetatik zintzilik ere sekulako garrangak ikusi ohi

ziren negu partean. Are gehiago, horrelako elurtea botatzen zuenean, askotan jendea lanera joan ezinda geratzen zen. "Garagartzatik Zerrajerara etortzen zen autobusa "Paloma" izenekoa, ondoren "Jauregi" izango zena, behin baino gehiagotan geratu zen etorri ezinda".

*Argazkia: Asun Lezeta.
Berriemaileak: Asun Lezeta eta Gloria Agirreureta.*



JUBAR[®]
ATEAK, S.L.

Kataide industrialdea, 18 • Tel.: 943 79 10 20 • Faxa: 943 79 08 17
110 Postakutxa • ARRASATE

- Garageko atek •
- Burdinazko pertsianak •
- Automatismokoak •
- Urrutiko agente tresnak •
- Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak •
- Konponketak •



subiranotasunaren aldeko urratsa

abstentzioa

espainiar hauteskundeei

Espainolak ez garelako


*Euskal Herriak
hitza eta erabakia izateko*

*Euskal Herriak
bere instituzioak
behar dituelako*

*Madrilgo inposizioari
agur egiteko*

*Gure seme-alabak
etorkizunaren
jabe izateko*

*Gure errekurtsuak eta
ekonomia geuk
antolatzekeo*



Zer meritu dauka horrelako auto batek 5 urteko garantia izateak



5 urteko garantia kilometro-mugarik gabe

Nissan Primera berriaren zenbait desberdintasun lehen egunetik gozaten da: Bere diseinu sendo eta kirol itxurakoa. Erosotasuna, dotorezia, eta barruko isiltasuna. Temperatura perfektua, klimatizagailuari esker. Bere Xenon optikei esker duen ikuspen bikaina. NBA (Nissan Brake Assist) galgatze-sistema, ahalegin txikiagoarekin galtze eraginkorragoa ziurtatzen duena. Multi-link suspentsio hobetua, egonkortasuna, kontrola eta arintasuna ematen diotenak. Alboetako eta aurreko airbagak, gorputz-enbor eta buruarentzat babesdunak. Cambio Hypertronic iraultzailea, CVT automatikoaren eta sei abiadurako eskuzko sekuentzialaren artean aukeratzeko modua eskaintzen duena. Motorraren gestio elektronikoa, biraketa-gama guztietan erregaiaren kontsumoa eta etekina hobetzeko. 1.6 (100 CV), 1.8 (114 CV), 2.0 (140 CV) eta turbodiesel (90 CV) bertsioetan. 4 eta 5 ateko eta SportWagon karrozeriak. Beste desberdintasun batzuk, berriz, urte batzuk geroago gozatuko dituzu. Garantia adibidez: 5 urte, kilometro-mugarik gabe. Hala ere, horrelako garantia eskaintzen badizugu, bistakoa da zergatia: seguruenik ez duzu sekula behar izango.

Bertsioen araberako ekipamendua.

PRIMERA	Pta.tik
1.6 COMFORT 4/5 P (ABS/NBA)	2.339.000
1.8 COMFORT 4/5 P (ABS/NBA)	2.639.000
2.0 SPORT 5P (climat/Xenon argiak/ABS/NBA)	3.239.000
2.0 TD COMFORT 4/5 P (ABS/NBA)	2.579.000
2.0 TD COMFORT Sport Wagon (ABS/NBA)	2.729.000

Nissan Primera Berria. Bete-bete autoa.

*Salneurri gomendatua (BEZ, Matrikulazio zerga, Garraioa, Nissan Assitance, banatzailearen eskaintzadun promozio kanpaina, eta 5 urteko Garantia kilometro-mugarik gabe). Penintsula eta Belear uhartetako baliagarria, stockean dauden ibilgailuentzat. Prever plana ez dago barne.

5 urteko garantia kilometro-mugarik gabe.



Klimatizagailu b



GIDATU ETA 60

ALDIBI AUTOAK, S.A.

NISSAN BANATZAILE OFIZIALA

Zigarrola kalea, 1 • Tel.: 943 71 20 02 • 20500 ARRASATE